

ELKARRIZKETA: FEDERICO MAYOR ZARAGOZA • ESPERIENTZIA: INMACULADA
IKASTETXEA • EKARPENA: UEUK 40 URTE • GALDEIDAZUE: URKO AROZENA
• ARRANTZALEEN MUSEOA • ATZEKO ATETIK: JOSE-

hh
hik hasi

168

4 EURO • 2012KO MAIATZA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



GAIA

Gu ere bertsoan
Bertsolaritza eskolan sustatzeko egitasmoa

10 URTEK
AURRERA

ZIZILI

UNAI ELORRIAGA
MAI EGUZZA

Zizili andreak ez du ezer ikusten, 207 dioptria dauzka begi bakoitzean. Munduko beturreko guztiak probatuta dauzka, baina alferrik.



12 URTEK
AURRERA

EZ DAGO ARGI

IDOIA ETXEBERRIA
EIDER EIBAR

Pareko etxean argi bat ikusi du Mireiak, gau eta egun piztuta dagoen argi bat. Inudimena bezain jakin-min handia du Mireiak...



10 URTEK
AURRERA

NERBIOIKO PIRATAK

GAIZKA AROSTEGI
BRUNO HIDALGO

Jonek pirata izatea erabakitzen du, telebistan ikusitako film batek txundituta. Kuadrillako lagunei proposatuko die, eta baita konbentzitu ere.



8 URTEK
AURRERA

SERIO DEMONIO

JUAN KRUZ IGERABIDE
JOKIN MITXELENA

Bazen mutiko bat inoiz barrerik egiten ez zuena, beti serio demonio. Kezkaturik zeukan irakaslea, zer gertatzen ote zitzaion?



**XAGUXAR BILDUMA ERABERRITUA,
INOIZ BAINO KOLORETSUAGO,
BETI BEZAIN DIBERTIGARRI**

elkar

www.elkarargitaletxea.com

aurkibidea



8
gaia

GU ERE BERTSOTAN

Bertsolaritzaren geroa ziurtatzea da Bertsozale Elkartearen egiteko nagusia. Ikastetxeetan egiten duen lanak bi norabide hauetan lagunduko dio bertsolaritzari: bertsolaritza indartzen eta partaidez elikatzen, alde batetik; eta, bestetik, herrietan bertso-eskolak sortzen edo abian daudenak partaidez hornitzen.



16
elkarrizketa

FEDERICO MAYOR ZARAGOZA

Heziketaren oinarriez hausnartu zuen Unescoren idazkari zereginetan; heziketa-prozesuak bost oinarri izan behar zituela adierazi zuen orduan: ezagutzen ikasi; egiten ikasi; izaten ikasi; elkarrekin bizitzen ikasi, eta ekiten ikasi. Heziketak pertsona libre eta arduratsuak egiten lagundu behar duela dio.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

GU ERE BERTSOTAN EGITASMOA

16 elkarrizketa

FEDERICO MAYOR ZARAGOZA. Bake gaiari aditua.

22 esperientziak

Inmaculada ikastetxean partaidetza lantzen.

26 ekarpenak

UEUren Udako Ikastaroan 40.

29 galdeidazue

Eraginkorra izan al daiteke entrenamendu mentala hezkuntzan?

Urko Arozena

33 berriak

36 nora joango gara?

Arrantzaleen Museoa, itsasoko bizitzaren erakusleihu.

38 Atzeko atetik

Joseba Olagarai. Kazetaria eta aktorea.

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Bertsozale elkarte. Elkarrizketako irudiak: ARGAZKI PRESS. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2012-04-25). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskarak merezi du,
hezitzaileentzat ona da
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta
HIK HASI egitasmoa
bermatu



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitez!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararaten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala maiatza

Euskal curriculumaren aplikazio bat



Zuberoako ikastoletako ikasle-ohiek beregain hartu dute bertan behera utzita zegoen aurtego maskarada eta haren antolaketa.

Hainbat zoritxarreko gertakari tarteko, aurten ez zela maskaradarik izango iragarri ziguten. Ondorioz, Zuberoan mendeetan gorde den usadioaren katea etenda geratu zen. Galera horrek, bestalde, maskarada gure kulturaren adierazpide garrantzitsua den heinean, euskaldun guztioi eragin zigun: denok galdu baikeuen gure izatearen, mundua ikusteko eta azaltzeko moduaren, parte bat.

Maskaradak hasita behar zuten tenorean, ordea, gehienontzat ezezaguna zen talde batek esan zuen katearen lekukoa beregain hartuko zuela: Xiberoako Ikastoletako Ikasle-Ohien elkar-tea da, Zuberoako ikastoletan ibilitako ikasleek osatutakoa.

Segur aski gazte horiek ez zuten lan erraza hartu haien bizkar: taldea herri askotako neska-mutilek osatzen dute, ez daude aurrez trebatuak, oso denbora gutxi izan dute prestaketa lanetarako... alde baino elementu gehiago zi-

tuzten kontra, zalantzarik gabe.

Hala ere, dantzan, kantuan eta bel-tzen jokoetan trebatzeari ekin zioten gogotsu gazteek. Gainera, haien gain hartu zuten antolaketa-lanen ardura. Jakin zuten, era berean, beren ekimenera jendea inguratzen, eta laguntzaile dituzte ikasle-ohiak, ikastolako gurasoak eta guraso-ohiak. Horra hor, bere lanaren, eta batez ere bere ausardiaren, emaitza: bost igandez, Zuberoako beste hainbeste herritan, maskaradak emateko konpromisoa hartu dute, eta atera dezaketen diru apurra, oso egoe-ra larrian den Lodosako (Nafarroa) Ibaialde ikastolari emango diote.

Ezustean harrapatu gaitu ikasle-ohi horien determinazioak, hainbeste urte Euskal Curriculumaren gainean hausnartzen daramagunoi: zenbat txosten eta ordu joan ote zaizkigu, dagoeneko! "Zer jakin behar du 16 urteko gazte bategen derrigorrezko eskolaldia amaitzen duenean?" galdera egin genion geure

buruari, eta horri erantzun nahian gabiltza urtetan: aplikazioan asmatu nahian, jarduera egokiak bilatu nahian, konpetentziak urtatu nahian...

Ikasle-ohiek, auzolanean, erakutsi dute kezka, ardura, ekintzailetasuna, ahalegina, esku zabaltasuna, elkartasuna, konpromisoa, elkarrekin ikasteko eta ekiteko gaitasuna... eta gure Hezkuntza-proiektuetan jasota ditugun beste hainbat balio eta konpetentzia. Eta erakutsi dute, batez ere, jendarte oso bat dugula oztopoz, baina aukerez, betea ekiteko. Eskolaz kanpo egiteak, balio erantsia ematen dio gazteek bere kabuz, jendartearekin, eta euskal kulturarekin sentitu duten konpromisoari.

Poza eta itxaropena ematen dute horrelako ekimenei. Norbaitek erein zuen haziaren uzta oparora da, zalantzarik gabe. Irakaspen ederra eman digute gazte zuberotarrek. Harro egon daitezke haien hezkuntzan parte hartu dutenek!

kronika

Apiriletik aurrera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ikasgaien erdiak euskaraz egiten dituztenei ez diete euskara gaitasunari buruzko titulurik eskatuko erakundeetan jarduteko. Egindako ikasketen arabera aitortuko diete jakite-maila bat edo bestea. Dekretua atzeraeraginezkoa izango da, eta 2008ko apirilaz geroztik lortutako tituluek balioko dute salbuespenerako.

Bestalde, Eusko Legebiltzarrak, gurasoek seme-alaben hizkuntza-eredua aukeratzeko "askatasuna" izaten jarraitu behar dutela adierazi du. Jaurlaritzari eskatu dio neurriak jartzen jarraitzeko. Gainera, baliabideak jartzeko eskatu dio, ikasleek benetako gaitasunak izan ditzaten euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteko, idazteko nahiz ulertzeko.

Hizkuntzekin amaitzeko, hala aurreikusita bazegoen ere, aurtengo selektibitatean ikasleek ez dute ingeleseko ahozko azterketarik egingo.



Lapurdin, Zuberoan eta Nafarroa Beherean...

L'express aldizkari frantsesak, Frantziako Estatuko lizeo onenen sailkapena egin du. Sailkapen horren arabera, herrialde horietako lizeorik hobereena, Hazparneko (Lapurdi) Saint-Joseph da; bigarrena, berriz, Baionako (Lapurdi) Largenté lizeoa litzateke; eta, hirugarrena, Baionako Bernat Etxepare.

Sailkapena egiteko hiru ezaugarri hartu ditu kontuan: 2011ko kausitza-tasa, urte batetik bestera lizeoak eginko hobekuntzak eta zentroaren iraunkortasuna.

Akademia ikuskaritza okupatuta

Seaskako irakasle ordezkoek bizi duten egora saltzeko, irakasle eta guraso talde batek Baionako Akademia ikuskaritzaren egoitza okupatu zuen.

Azken hilabeteetan, ordezko irakasleek hainbat arazo izan dituzte or-

dainketetan, eta ikuskariak ez zuten onartzen haiekin hitz egitea.

Deszentralizazio legearen ondorioz, Dordognako Ikuskaritza da ordezkapenak egiten dituzten irakasleen ordainketaz arduratu duena.

LAB sindikatuak deitutako itxialdiak izan zituen emaitzak: azkenean, sindikatuko kideak eta irakasle ordezkoen ordezkariek lortu zuten Paueko inspektzio-arduradunarekin eta Baionako ikuskaritzako arduradun batekin biltzea. Bileraren amaieran, inspektzio-arduradunak aitortu zuen akatsak daukela irakasle ordezkoen txostenen kudeaketan, eta hitz eman zien Dordognako ikuskaritzako arduradunekin harremanetan jarriko zela aterabide bat aurkitzeko.

Urruñako ikastola handitu da

Urruñako (Lapurdi) ikastola 1995ean sortu zen 14 haurrekin elizak utzitako 40 metro koadroko gela batean. 2011-2012 ikasturtea 92 ikaslekin abiatu zuen, baina dagoeneko baditu 112 ikasle. Ikasle handitzeari aurre egiteko ikastola handituzko lanak hasi zituzten eta baita amaitu ere.

Lanek, 600.000 euroko kostua izan dute, eta hainbat ekimen ipini dituzte abian dirua biltzeko. Horietako bat izan zen arrakasta handia izan zuen *Behikkingoa*.

“Gurean, oraindik, euskararen etorkizuna ziurtatu gabe edukita, eleaniztasun-plangintzak jadanik bideratuak ditugu”.

Paulo Iztueta



Espainiako Estatutik datozen neurriak

Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan eragina izango duten hainbat neurri hartu ditu Espainiako Estatu-gobernuak. Neurriak, dirua aurrezteko aitzakian hartu dituzte.

Eztabaida eta haserrea nagusi da, eta Nafarroako Gobernuak jada adierazi du agindutakoak beteko dituela. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, hezkuntza arloan dituen eskumenak urraturiko diren ala ez aztertu nahi du. Neurriek hezkuntzaren kalitatean izango duten eraginaz kezkatuta dago jendar-tea, oro har.

Honela laburbildu daitezke Espainiako Hezkuntza Ministerioak ezarri nahi dituen neurriak:

1. Talde handiagoak

Gaur egungo gehienezko mugak %20 handituko dituzte. Derrigorrezko

ikas-aldi osoan gehienez 30 ikasle egon ahal izango dira talde bakoitzean.

2. Eskola ordu gehiago

Irakasleei eskola ordu gehiago jarriko dizkiete. Bigarren Hezkuntzan 20 eskola-ordu eman beharko dituzt, eta Lehen Hezkuntzan, berriz, 25 eskola-ordu.

3. Ordezkapenak

Irakasleek ez dute ordezkapenik izango 10 egun igaro arte. Eskolako gainerako irakasleek izango dute falta den irakaslearen ikasleen ardura.

4. Ordainsariak

Erkidegoetako gobernuek ezingo dituzte lansari osagarriak eta apartekoak sortu. Behin-behineko neurria dela gaineratu dute.

5. Batxilergoa

Bigarren Hezkuntzako zentroek batxilergoaren adarretako bat soilik eskaini ahal izango dute.

6. Lanbide Heziketa

Lanbide Heziketan irailetik aurrera jartzea aurreikusita zeuden modulu berriak ez dituzte jarriko 2013-2014 ikasturte arte. Hala ere, Espainiako Hezkuntza ministroak iragarri du, jada, ordurako aldatua izango dela Lanbide Heziketa.

Nafarroako ikasleek greba egin zuten beste hezkuntza-eredu baten alde. Foruzainek bi gazte atxilotu zituen. Egun berean aske utzi bazituzten ere, gazteetako bat eritetxera eraman behar izan zuten kolpe bat zuela-eta. Ikasle Abertzaleak taldeak adierazi zuenez, “Egungo hezkuntza-sistemak ez ditu betetzen ikasleen beharrak, ezta herriaren beharrak ere”. Bestalde, Iruñeko PSNko udal taldeak “kezka handia” agertu zuen hiriko haur-eskola publikoen eskaintza eskasa dela-eta. Behin-behineko datuen arabera, izena eman duten ikasleen % 45 lekurik gabe geratu dira. Horien artean daude Iruñeko Alde Zaharrean euskarazko haur-eskolarik gabe geratuko diren 82 haurrak. *Alde Zaharrean Haur Eskola Euskaraz!* plataformak salatu du egoera, eta Alde Zaharrean haur-eskola bakarra dagoela adierazi du, 58 haurrentzat tokia duena: eskasa auzoko haur guztiak jasotzeko. Gainera, eskola horrek gaztelaniazko eredua du. Beraz, gurasoek haurrak euskarazko haur-eskoletan sartzeko inguruko auzoetako haur-eskoletara eskatu beharko dute plaza.

GAIA

Gu ere bertsoan

Eskolan bertsojaritza sustatzeko egitasmoa





Bertsolaritzaren geroa ziur-tzea da Bertsozale Elkartearen egiteko nagusia. Horretarako, hainbat esparrutan eragiten du, besteak beste, transmisioan. Zeregin horretan, Bertsozale Elkartearentzat funtsezkoa da Euskal Herriko haur eta gaztetxoek bertsolaritzaren oinarri-oinarrizko ezagutza izatea, gure herri-kulturaren ondarreetako bat den heinean.

Ikastetxeetan egiten duen lanak bi norabide hauetan lagunduko dio bertsolaritzari: bertsolaritza indartzen eta partaidez elikatzen, alde batetik; eta, bestetik, herrietan bertso-eskolak sortzen edo abian daudenak partaidez hornitzen. Bertso-eskolak sendotzeko, beraz, funtsezkoa da ikastetxeetan neska-mutilei bertsolaritza hurbiltzea.

Bertsolaritzaren transmisioa eremu berriak irabazten ari da urtetik urtera. Horren isla dira amaitzean den 2011-2012 ikasturteko datuak.

Guztira, Euskal Herriko 374 ikastetxetan landu da bertsolaritza. Iazko ikasturtearekin alderatuta, 47 ikastetxe berri aritu dira egitasmoan. Ikastetxe horietan, 20.270 ikasle aritu dira bertsolaritza lantzen, iaz baino 2.828 ikasle gehiago. Ikasle horiekin guztiekin batera, Bertsozale Elkarteak 36 bertso-irakasle aritu dira, gainera.

Bertsolaritza hezkuntza arautuan

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) adituen aholkularitzarekin, *Bertsolaritzaren Curriculum* *Lehen Hezkuntzan* lana argitaratu zuen 2008an. Lan hori da, hain zuzen, Bertsozale Elkarteak ikastetxeetan duen egitasmoaren oinarritzailea.

Bertsolaritzaren Curriculumean oinarrituta, Bertsozale Elkarteak Gu ere bertsoan egitasmoa eskaini zien ikastetxeei. Egitasmoa ikasturte osokoa da, eta, astero edota bi astez behin, ordubeteko eskolak eskaintzen dizkio bertsolaritzari. Eskolak Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetan ematen dira batik bat, Euskarako ikasgaiaren barruan.

Eskola horiek Bertsozale Elkarteak irakasleak gidatzen ditu, tutorearen laguntzaz. Bertsozale Elkarteak argitaratutako *Gu ere bertsoan* ikasliburua baliatzen dute ikasleek eskola horietan. Irakasleek, berriz, audio- eta bideo-material osagarriak dituzte eskura.

Egitasmoaren inguruan, era berean, hainbat ekimen berezi antolatzen dira ikastetxeetan: jaialdiak, kantaldiak, bertso-saioak, eta abar.

Ikasliburuak ikuspegi komunikatiboan oinarritzen diren 9 sekuentzia didaktiko lantzen ditu, audio eta bideo

osagarriez lagunduta.

Gu ere bertsoan 1 eta *Gu ere bertsoan 2* liburuek osatzen dute ikasmateriala. Lehena 2010-2011 ikasturtean argitaratu zuten, eta euskal materialen alorrean Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ematen duen saria jaso zuten, "ikas-material osagarririk hobereena" atalean.

Ikasturte honetan, bi berrikuntza nagusi izan ditu egitasmoak. Alde bate-tik, Bertsozale Elkarteak eta Ikastolen Elkarteak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute, eta abian jarri. Hitzarmen horri esker, bi elkarteak elkarlanean aritu dira datozen urteetan. Hauek dira hitzarmenaren ildo nagusiak: Euskal Curriculumaren barnean bertsolaritzari dagokion tokia zehaztea; bertsolaritza eskola-orduetan ematea; bertsolaritzari lotutako materiala elkarlanean egitea; ikastoletan zein herri-mailan bertso-eskolak eta bat-bateko taldeak sustatzea; eta, azkenik, Eskolarteko Bertsolari Txapelketa elkarlanean antolatzea.

Bigarren berrikuntza, beste aldetik, bertso-irakasleen prestakuntzarekin lotuta dago. Ikasturte osoko prestakuntza bideratu da, eta irakasleek berek aukeratu dute aurtengo gaia: irakasleen estrategiak.



G

Bertsolaritza eskolan

Gu ere bertsotan egitasmoa

Bide horretan, *Bertsolaritzaren Curriculumum Leben Hezkuntzan* osatu zuten. Curriculum horrek jasotzen ditu ikastetxeetan bertsolaritzaren lan-
ketak haurren garapenari begira dituen helburuak, horiei lotutako edukiak eta metodologia zein ebaluazio irizpideak. Lan horretan oinarriturik osatu zuten ikastetxeetako *Gu ere bertsotan* egitasmoa.

Gu ere bertsotan egitasmoak bertsolaritza ikuspegi globalizatzaile batekin planteatu nahi du. Horregatik, Bertsolaritzaren Curriculumean, bertsolaritzak haurren garapenari egiten dion ekarpena aurkituko dugu, lau arlo hauetan: hizkuntza, kultura, musika (ahotsa) eta trebetasun pertsonal eta sozialetan.

Egitasmoak hainbat helburu erdie-tsi nahi ditu, ikasleen gaitasunari dagokionez, maila pertsonalean zein ikastetxean edota herrian.

Helburu orokor bakoitzari lotutako edukiak, bestalde, bertsolaritzak biltzen dituen 4 arloetatik behatuta landu dituzte: hizkuntzaren, kulturaren, musikaren (ahotsa) eta trebetasun pertsonal eta sozialen arloetatik.

Egitasmoaren metodologiaren oinarriak

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna lantzeko, ahoz nahiz idatziz azken ekoizpena lortzea xede duten metodologiak erabiltzen dituzte Gu ere bertsotan egitasmoan. Izan ere, azken ekoizpenak benetako komunikaziorako baten erantzun izango dira, ikasleen ikaskuntza-motibazioan eragiteko. Egoera adierazgarriak eta funtzionalak planteatuko zaizkie ikasleei: errealak, sarri ikasgelatik harago joatea eskatuko dietenak.

Ikasgelan, irakasleek eta ikasleek egin beharreko atazaren antzeko irudi

bat izango dute beti abiapuntu, elkarrekin eraginkorra lortzeko; hau da, ekoizpen eredugarria aurkeztuko zaie beti. Horrek ikasketan inplikatzen aukera emango die.

Halaber, audio- eta bideo-euskarietan ereduak bertsosaldiak entzun eta ikusiko dituzte. Ahozkoaren *input* eredugarriak aztertzen aukera emango die horrek, ikasleentzat erakargarria den genero batean: bertsotan, hizkuntzaren dimentsio ludikoak eta estetikoak indar hartzen duten genero horretan.

Azken ekoizpenak jendaurrean plazaratzeko eskatuko die egitasmoak beti ikasleei. Horregatik, garrantzi handikoa izango da ikasgelan giro egokia lortzea, ikasleek azken ekoizpen horiek konfiantza eta elkar errespetatuz gauza ditzaten. Jendaurreko azken ekoizpen horietan, gainera, ikasleekin jendaurrean jarduteko estrategiak lantzeaz gain, kontzienteki landuko dute publiko gisa nola jokatzeko dagokien. Hartara, ikasgela osoaren ardura izango da gela aurrean jarriko den ikasleari laguntzea, bere buruarengan konfiantza har dezan.

Egitasmoak, era berean, ikaskuntza autonomoa lantzen du. Horretarako, prozesuaren hasieran ikasle bakoitzak bere helburuak zein diren adieraziko du: zer eta zertan ikasi nahi duen, alegia. Bide batez, prozesua bera ere irekia izango da, ikasle bakoitzaren sormenak lekua izan dezan.

Bestalde, ebaluazio hezitzaileak sustatuko ditu, eta, horretarako, autoerregulaziorako tresnak eskaintzeaz gain (kontrol-zerrendak), auto-ebalua-

EGITASMOAREN HELBURUAK

Gaitasunetan

Bertsolaritza kultur adierazpidearen oinarritzko ezagutza izatea.
Bertsoaletzea eta euskararekiko jarrera positiboa izatea.
Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzea.
Jendaurreko emanaldi bat eskaintzeko oinarritzko betekizunak ezagutzea eta egoki baliatzea.
Harreman onak sustatzea taldean.

Ikastetxean/herrian

Ikastetxean/herrian bertsoaletasuna eta bertsolaritza sustatzea.
Ikastetxeaz kanpo, hurrek beren inguruan jarraipena ematea zaletasun horri.



zioa eta koebaluzioa bultzatuko dira. Ikasleek gogoeta egingo dute ikasgelan gertatzen denaz eta ikasten dutenaz, eta bereziki prozesu horretan zehar sentitu dutenaz (jendaurrean ahoz jardutea eskatuko diegu ikasleei, eta horrek hainbat beldurri eta barne-mugari aurre egitea eskatuko die).

Sekuentzia didaktikoetan

Ikasgelako jarduna sekuentzia didaktikoetan oinarritzen da. Ikas-prozesuaren ardatza egoera komunikatibo erreal bati erantzutea izango da beti. Ikasgelako jardunean laguntzeko, *Gu ere bertsoan 1* eta *Gu ere bertsoan 2* ikasliburuak baliatuko dira, eta material osagarriak dakartzan eredu zuko bertsoaldiak ikusi eta entzungo dira ikasgelan. Bertsoak aukera komunikatibo guztiak izan ditzan, audioak, bideoak, eta abar eskaintzen ditu. Aukera guztiak ematen ahalegintzen dira sekuentzia didaktikoak: ez soilik bertsoak sortzen eta teknika menderatzen, baita, behin hori eginda, bertsoa ahalik eta esparru gehienetara zabaltzen ere.

Ikasle askok ez dute harremanik bertsolariarekin. Horregatik, bertsolariaren historia, gauregungo egoera, eta abar ere lantzen dira. Era berean, inguruan izaten diren saioen berri ere ematen diete, eta errealitate hori ezagutarazten ahalegintzen dira.

Bertso-irakasleak ikastalde bakoitzarentzat proposenak diren sekuentziak hautatuko ditu, ikasturteari dago-kion lanketa egiteko. Hauexek dira ikasliburuek jasotzen dituzten sekuentzien helburu komunikatiboak:

Gu ere bertsoan 1 ikasle-liburua

** Hasierako ebaluazioa ("Saioz saio" sekuentzia)*

Sekuentzia	Helburu komunikatiboa
Geure buruari	Ikasgelaren aurrean nor bere burua aurkeztea kopletan.
Euskararen Eguna	Euskararen Egunean, bertsoak abestea ikastetxeko ekitaldian
Bertso-irratsaioa	Bertsolaritzari buruzko irratsaio bat emititzea.
Neguko Eskea	Neguko Eskean (inauteriak, Santa Ageda...), koplakantari aritzea.
Bertso-paperak	Bertso-paper lehiaketa batean parte hartzea edota etxekoei bertso-paperak abestea (ikasleek hautatuko dute zer egin).
Bertso-ipuina	Haur Hezkuntzako ikasleei ipuinak bertsoan kontatzea.
Bertso-eskola	Ikasgelaren aurrean bat-batean jardutea bertsoan.

** Azken ebaluazioa (ikasleen autoebaluazio fitxak)*

Gu ere bertsoan 2 ikasle-liburua

** Hasierako ebaluazioa ("Saioz saio 2" sekuentzia)*

Sekuentzia	Helburu komunikatiboa
Bertso-txartela	Ikaskide bati bertsoz osatutako posta-txartela bidaltzea
Euskararen Eguna 2	Euskararen Egunean ikastetxeko ekitaldian bertsoak abestea.
Bertso-komikia	Ikastetxean bertso-komiki erakusketa bat muntatzea.
Ofizioka	Ikasgelaren aurrean ofiziokako saio bat egitea, aurrez prestatutako bertsoekin.
Bertso-paperak 2	Bertso-paperak jartzea, ikasleek nahi duten hedapena emanez (jolas-orduan banatzeko, ikastetxeko webgunean edo aldizkarian zabaltzeko, lehiaketa batean parte hartzeko...).
Umore-showa	Ikasgelaren aurrean umore-showa eskaintzea, historian izan diren bertsolari ezagunen pasadizo eta bertsoetan oinarrituta
Bertso-eskola	Ikasgelaren aurrean bat-batean jardutea bertsoan.

** Azken ebaluazioa (ikasleen autoebaluazio fitxak)*

Bertsolaritza eskolan

Ikasgelatik at: ekintza osagarriak

Egitasmoan, garrantzi handia dute ekintza osagarriak. Izan ere, akuilu dira ikasturtetan zehar ikasgelan egindako lana plazaratzeko eta ikasleen motibazioan eragiteko. Gainera, funtsekoak dira ikastetxean edota herrian bertsozaletasuna eta bertsolaritza sustatzeko eta ikastetxetik kanpo ere neska-mutilek bertsozaletasunari beren inguruan jarraipena emateko. Eta bi horiek dira, hain zuzen, egitasmoak herrian eta ikastetxean lortu nahi dituen azken helburuak.

Ikastetxeak dituen ohituren arabera edo Bertsozale Elkarteak herrialdean abian dituen ekimenen arabera zehazten dira ikastetxe bakoitzean ikasturtean zehar burutuko dituzten ekintza osagarriak. Hauek dira ikastetxeek egiten dituzten ekintza osagarri horietako batzuk:

Topaketak edo jaialdiak: eskualdeko edo herriko ikastetxeetako bertso-ikasle guztiak egun batean batu egiten dira, eta ikastalde bakoitzak gelan prestatutako ekoizpen bat jendaurrean aurkezten du. Araban, gisa horretako 6 topaketa egin dira; Bizkaian, 7 egiten dira, eta Gipuzkoan, berriz, 72.

Kantaldiak: aurrekoaren antzera, baina ikasleek kantaldia eskaintzen dute. Musikari batek lagunduta, ikastaldek txandaka igotzen dira oholtzara, bertso-sortak abestera. Bizkaian, gisa horretako 50 kantaldi egin dituzte.

Bertsolariak ikastetxera: ikastetxean antolatzen da bertso-saioa, eta ikasleek prestatzen dituzte gaiak. Herrialdeko edo hurbileko bertsolariak ekarri ohi dira, bertsolari ezagunak zein bertso-eskoletan bat-batean ikasten ari di-

ren haur edo gaztetxoak.

Bertsometak edo Bilbertsoak: ikasturte amaieran herrialdeko ikastetxeetako ikasgela bakoitzak jarritako bertso-sorta jasotzen duen bilduma da. Ikasle bakoitzari ale bat ematen zaio.

Eskolarteko Bertsolari Txapelketa: apiriletik ekainera ospatzen da herrialdez herrialde. Ekainean, berriz, Euskal Herriko finala izaten da. Txapelketan, bat-bateko eta idatzizko mailak daude: lehenengoan, bertso-eskolako ikasleek hartzen dute parte. Ikastetxeetako ikasleek bertso-sortak idazten dituzte, eta bat-bateko saioak zein finalak ikustera joateko aukera dute.

Ikastetxeen iritzia

Egitasmoan parte hartzen duten ikastetxeek ere egin dute ebaluazioa. Ebaluazio-bileretan eta idatziz egin dituzten ebaluazioetan, honoko hauek nabarmendu dituzte:

Metodologiaren dinamikotasuna: ohiko eskolen errutina gainditu egiten du.

Hizkuntza era ludiko eta erakargarrian lantzeko ematen dituen aukerak.

Bertso-irakasleek neska-mutileki kolortzen duten hurbiltasuna. Halaber, irakasle horiek, hainbatetan, ekimenen dinamizatzailerola hartzea ikastetxeak antolatutako ekitaldietan.

Ikasleen atsegin-maila bertsolaritza-eskoletan.

Saio edo ekintza osagarriak asko estimatzen dituzte: ikasturte amaierako jaialdia, bertso-saioa, ikastetxeko ospakizunetan parte hartzea, eta abar.





Datuek diotena

Gu ere bertsotan egitasmoa Euskal Herri osoan eskaintzen da, eta hazten ari da urtez urte. Horren lekuko dira ikasturte honetan bertan bildutako datuak:

lakaera da azpimarragarriena: Seaskako ikastola guztietan garatu da egitasmoa, eta 9 eskola elebidunetan 8 orduz irakatsi da bertsolaritza aurtan.

lik estaltzen ditu beharrak. Gainerakoa udalek osatu behar izaten dute. Horren ondorioz, ikastetxeetako eskariak erraz gainditu du hitzarmenak eskaintako ikastalde kopurua, eta egitasmoa hedatzeko muga ekonomikoak dituzte. Hitzarmenak, gainera, ikastetxe publikoak soilik hartzen ditu kontuan. Ikastoletan zabaltzeko zailtasunak handiak dira, eta zonalde "ez euskaldunetara" iristeko ezintasunak, beraz, nabarmenak dira.

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, ez dute inolako hitzarmenik Hezkuntza Sailarekin, eta egitasmoaren finantzazioa, oso-osorik, udalen, mankomunitateen eta ikastetxeen kontura doa. Halako hedadura duen egitasmoak eta Euskal Curriculumean hainbesteko pisua duenak Hezkuntza Sailaren aldetik gutxieneko oinarria behar duelakoan daude udalak, ikastetxeak eta Bertsozale Elkarteak.

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, Seaskako ikastola guztietan eskaini da Gu ere bertsotan, Ikastolen Elkartearekin duten akordioari esker. Eskola elebidunetan, berriz, 5 orduko ikastaldiak eskaini dira herri-elkargoen bidez.

Bertsolaritza ikastetxeetan (2010-11 eta 2011-12 ikasturteetako eboluzioa)

	Ikasturtea	Ikastetxeak	Ikasleak	Taldeak	Irakasleak
ARABA	2010-11	35	1.624	87	4
	2011-12	41	2.060	134	5
BIZKAIA	2010-11	116	5.274	277	13
	2011-12	156	7.023	334	15
GIPUZKOA	2010-11	123	8.800	430	11
	2011-12	125	9.394	454	11
NAFARROA	2010-11	34	1.204	70	3
	2011-12	33	1.193	51	3
XILABA (Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Beherea)	2010-11	19	540	33	2
	2011-12	30	990	46	2
GUZTIRA	2010-11	327	17.442	897	33
	2011-12	385	20.660	1.119	36

Herrialdez herrialde, aipatzekoa da Araban bertsogintza lantzen hasi direla Aiaraldean, Laudion eta Artziniegan, eta eskualdea asko indartu dela: B eta D ereduko ikastetxe guztietan ematen da bertsolaritza. Gorbeialdeko eta Errioxa aldeko D ereduko ikastetxe guztietan ematen da.

Bizkaian, Durangaldean eta Ezkeraldean indartu da bereziki bertsolaritzaren transmisioa.

Nafarroan, berriz, datozen hiru urteetarako hitzarmena sinatu dute Hezkuntza Sailarekin. Horren arabera, urtetik urtera, aurrekontua eta talde kopuruak berrikusiko dira.

Guztien artean, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan gertatu den bi-

Emaitza onek eta irakasleen eta ikasleen onespenez eta egitasmoarekiko atxikimenduak, ordea, ez dute oraindik administrazioen aldetik behar harko luketen babes eta laguntza jaso.

Hala, Nafarroako Gobernuarekin egindako hitzarmenak zati batean soi-



Bertsolaritza eskolan

Transmisio-katearen katebegiak



“Ez dakit non ikasi duen Alaiak milaka lagunen begiradapean bain seguru aritzen eta sekula eroriko ez delako sentsazioa saltzen. Ez dakit obolatzako zenbatgarren eskaileran erantzten duen Beñat Gaztelumendik lotsa eta janzten dituen burutazio onenen erritmora dantzatzen duten begi jostari horiek. Harritu egiten naiz Unai Agirrek Txirritari begia kliskatzen dion bakoitzean, eta ez muke jakingo Agin Rezolaren ausardia eta freskotasuna haren hitzekin deskribatzen. Jexux Mari Irazuk bertsozalea bain manera onean agurtzen duenean, aspaldiko bertsolariekin akordatzen naiz, eta Irazuk barruan zenbat jasoa duen obartzten naiz. Sekula horrelako plaza batean aritu ez bada ere, Iñaki Apalategik erakusten duen patxada antzekoak liluratzten nau, eta Jon Martinek bertsoan zuloa nola egiten duen eta

neurri zehatzeko poesia bertan nola sartzen duen ikusteak harritu egiten nau. Aitor Sarriegik bertsoz bertso egindako lana konstantzia-lezio bikaina iruditzen zait.

Eta non ikasi dute hori guztia? Bertso-eskolan? Agian izena aldatu beharko zaio, hor ez baita bertsoan egiten bakarrik ikasten”. (GAUR8, 2011ko abenduak 24)

Amagoia Mujikak aipatutako hariei tiraka, *bik hasik* bertatik bertara ezagutu nahi izan du lan hori.

Amaitzean den ikasturtea hezkuntza arautuan bertsolaritzaren irakaspena hartzen ari den indarraren isla izan da: datuek hala diote. Hazkunde azpimarragarriena, zalantzarik gabe, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan gertatu da.

Zenbakien atzean dauden aurpegi-tako batzuk eta lanaren zati bat eza-

gutzeko, *bik hasik* hitzordua egin zuen apirileko ostiral batean, goizean goiz, Pausuko (Lapurdi) Xaia ostatuan Aimar Karrika bertsolari eta bertso-irakaslearekin. Egun berezia zen, mugak oraindik zeinen erro sakonak dituen erakusten duen egun horietako bat: azken opor eguna zen “hegoaldeko” ikasleentzat, eta lehen opor eguna, aldiz, “iparraldekoentzat”.

Aimar Karrika bertsolariak Hendaiako (Lapurdi) ikastolan ezagutu zuen bertsoa. Ernest Alkat etorri zitzaizkien Lehen Hezkuntzako laugarren eta bosgarren urtean eskolak ematera, eta izugarritzko gustua hartu omen zion bertsogintzari. Garai horretan, bertso-eskolan hasteko eskaintza egin zioten, eta hori izan zen bertsolaritzan murgiltzeko bidea.

Hala ere, bertso-eskolan bi urte egin ondoren, utzi egin zuen. Kolegioan zegoela, hamalau urterekin ekin zion berriro bertsoak josteko langintzari. Ondoren etorri ziren Nafarroako Bertsolari Txapelketak eta gainerakoak. Orduetik hona, bertsoarekin erabat maiteminduta ibili da, eta oraindik txundituta jarraitzen omen du.

“Egia da aldaketa dagoela ikasle izatetik irakasle izatera, baina hamalau urterekin neraman ilusio eta alaitasun bera eramaten dut bertso-eskolara” dio Aimarrek, irribarrea galdu gabe.

Aimar Karrika, Odei Barrosorekin eta Jon Garmendia Txuriarekin ari da Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan bertsoaren magia irakasten. Bi lehenak, ikastoletan eta hainbat eskola elebidunetan; eta hirugarrena, bertso-eskoletan.



Ostiral horretan, Karrikak bi ikastetxetan zituen saioak, hiruhilekoko azken saioak ziren, bereziak. Horregatik, hainbat bertsolari gazte gonbidatu zituen bat-batean aritzeko.

Lehen saioa Hendaiaiko Saint Vicent ikastetxean egin zuten. Bertsolariak zain zituzten zortzi astez eta astean ordubetez bertsolaritza ikasten aritu diren Lehen Hezkuntzako 22 ikasle, 9 eta 10 urte bitartekoak. Bertsolaritza-eskolak Pantxika andereñoaren Euskarako orduan jaso dituzte. Hura ere saio bereziotan egoten da, ikasleei eta haien atalaldiei so.

Eskola elebiduna da; hau da, ikasgaien erdiak frantsesez egiten dituzte, eta beste erdiak, euskaraz. Ikasle gehientsuenak hegoaldeetik datoz, eta haietako bik soilik hitz egiten dute frantsesez etxean; gainerakoek gaztelaniaz hitz egiten dute. Gehienentzat, euskara eta frantsesa, beraz, bigarren eta hirugarren hizkuntzak dira, eta eskolan ikasi dituzte, aldi berean.

Oihana Teyseyre urruñarrak 15 urte ditu, eta Maddi Ane Txoperena hendaiarrak, berriz, 17. Biak gonbidatu zituen Karrikak Saint Vicenteko ikasleek aurretik prestatuta zituzten errimekin, gaiekin eta abarrekin bertso-jostean aritzeko. Ez da hiruhileko amaiera batean parte hartzen duten lehen aldia: aurreko egunean, Senpereko eskolan

izan ziren, esaterako.

Bi neska gazteak serio demonio adi-adi zituzten ikasleen aurrean jarri ziren, eskuak atzean zituztela, bertsolari handien aldarte hartuta. Ikasleek, beren aldetik, prestatuta zituzten koplak kantatu zizkieten bertsolariari.

Erabat parte-hartzailea izan zen saioa, gainera. Ariketa batean, Txoperenak bertsoan deskribatu zuen pertsonaia xelebrea marraztu zuten ikasleek kaieretan. Ondoan zuen Oihana, deskantsuan. Amaitu bezain laster, txanda ezin harturik, bertsoen esanera orri zurian sortu zitzaizkien pertsonaia erakutsi nahian hasi ziren.

Maisuak saioa amaierara heldu zela iragarri zuenean, txaloka, bertso gehiengo eskatu zituzten ikasleek. Gustura zeuden seinalerik onena, dudarik gabeko. Bertso honekin agurtu zituen Maddi Anek entzule gazteak, hiruren partez:

**Zuen koplak ta beste errimak
ongi dituzue prestatu.**

**Zuen aurrean kantatzen hemen
guk ongi dugu pasatu.**

**Baina zuek gaur aski ez zela
gehiago nahi duzue jolastu.**

**Baldin baduzue ikasi eta
zuek ere bai kantatu
eta euskaraz gozatu.**

Saioa amaitu bezain laster, Maddi Ane eta Oihana Baionako Bernat Etxepare Lizeora eraman zituen Karrikak, Matematikako eta Biologiako eskolara.

Handik Kanboko (Lapurdi) Xalbador Kolegiara joan zen, hurrengo saiorako bertsolarien bila. Han zituen zain, Leire Laskarai, Nahia Sasco, Julen Vignon eta Ellande Dunate, 13 urteko gazteak.

Boston helmuga Hazparneko (La-

purdi) Ezkia ikastola zen. Ikastolako areto batean zain zituzten 3., 4. eta 5. mailako 60 ikasle. Ikasle horiek hiruhilekotez landu dute bertsolaritza Karrikarekin, astean ordubetez. Batzuentzat bertsolaritza-programaren azken saioa zen; izan ere, ikastoletan, 3. mailan hasi eta 5. maila bitartean lantzen dute bertsolaritza.

Bertso-irakasleak, Karrikak, ikastolako haurrei entzungo zuten guztia mementoan asmatua zela argitu ondoren, lanean jarri zituen Kanboko bertso-eskolan ikasle dituen gazteak. Bertsolari gazteek puntuka agurtu zituzten, lehenik, begiak zabal-zabal begira zituzten neska-mutilak. Hainbat ariketa egin zituzten segidan: ikasleek berek emandako errimekin batzuk, irakasleak jarritakoak, besteak. Entzutea ere egokitu zitzaizkien: neska-mutilek berek sortutako koplak, hain zuzen. Gustura entzuleak, eta gustura bertsolari gazteak: "Irri asko egiten dugu Aimarrekin", laburbildu zuen Leirek saio amaieran, Karrikarekin duten harremanaz hitz egitera koan.

Ereindako hazia ernatzen ari da. Entzule dituzten neska-mutilen artean 6 Kanboko bertso-eskolan hasi dira aurten. Lehenago Maddi Anek, Oihanak, Leirek, Nahiak, Julenek, Ellandek, Odeik eta Aimarrek berek egin zuten bidea eginez: ikastolatik bertso-eskolara, eta bertso-eskolatik bertso-mundura.



federico

mayor zaragoza


EL KARRIZKETA

Bake gaian aditua.

“Hauxe izango da jende heziaren
erronka: bestelako etorkizuna
sortzea, bai Euskal Herrian eta baita
munduan ere”

ikas

rtea



federico mayor zaragoza

E

“Ez da libre izatea, eta kito. Eguneroko gure jarrerak dauzkan eraginak eta ondorioak kontuan izatea esan nahi du pertsona arduratsuak izateak.”

XXI. mendeko heziketaren oinarrietz hausnartu zuen Unescoren idazkari zereginetan; heziketa-prozesuak bost oinarri izan behar zituela adierazi zuen orduan: ezagutzen ikasi; egiten ikasi; izaten ikasi; elkarrekin bizitzen ikasi, eta ekiten ikasi. Heziketak pertsona libre eta arduratsuak egiten lagundu behar duela dio, era horretan, menpeko ez, baizik eta hiritar izango baita pertsona. Hezkuntzaren egiteko ez mintzatu zen Donostian, Ikastolen Elkartearen XIX. Jardunaldi Pedagogikoetako sarrera-hitzaldian. Heziketa eta ikasketak bereizi zituen lehenik eta behin. Ondoren, esan zuen heziketa demokraziaren oinarria dela, eta Euskal Herriari buruz adierazi zuen heziketa izango dela bake-prozesuaren ardatza: “Jende askok uste duena baino helduagoa da euskal gizartea. Herri honetan egon den tentsio sozialak hezi egin ditu herritarrek”.

Frankismoaren azken urteetan, Hezkuntzako idazkariorde izan zen Mayor Zaragoza, eta, UCDren gobernu-aroan, Adolfo Suarez gobernuburuaren aholkulari eta Hezkuntzako ministro izan zen. Unescoren idazkari nagusi izendatu zuten 1987an, eta gaur egun, Bakearen Kultura Fundazioko presidente da Federico Mayor Zaragoza (Bartzelona, 1934).



Unescoren idazkari nagusi izan zinen. Nazio Batuen Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Erakundearen konstituzioak dio askeak eta arduratsuak izatea dela hezkuntza.

Askotan, hezkuntzaz hitz egiten dugunean, han eta hemen ateratzen diren txostenak hartzen ditugu oinarri: umeak atzeratuta doazela Matematikan, etab. Hori ez da hezkuntza, hori jakintza batzuen ikasketa da. Hezkuntza askeak eta arduratsuak izatea da, bai, halaxe dio Unescoren konstituzioak. Askeak eta arduratsuak. Aske izateak esan nahi du guk geure hausnarketan arabera ekingo dugula: entzun, ikusi, pentsatu, hausnartu, irudikatu, asmatu... Azken batean, norberaren hausnarketan arabera ekitea da heziketa. Sekula ez inoren esanetara, dogmen arabera, ekitea. Pertsona orori dago-kion askatasun erabatekoa lortutakoan erabakiko du pertsona bakoitzak zer egin behar duen. Horixe da Unescoren konstituzioaren lehen artikulua esaten duena, heziketak pertsona aske eta arduratsuek egiten lagundu behar duela.

Arduratsuak, zer zentzutan?

Ez da libre izatea, eta kito. Eguneroko gure jarrerak dauzkan eraginak eta ondorioak kontuan izatea esan nahi du pertsona arduratsuak izateak.

Pertsona aske eta arduratsuak izanik, heziketak menpeko ez, baizik eta hiritar egiten gaituela esan izan duzu.

Gaur arte, menpeko pertsonak izan gara, ez ginen hiritarrak, eta, gaur egun, oraindik jende asko dago, ikaragarri, hiritarra ez dena, besteren menpeko dena, ez baitu askatzeko aukerarik izan. Mende askoan, gizonaren nagusi-

tasunaren menpeko izan gara, boterea gizonezkoena izan da erabat, eta indarrean oinarritu izan da, gainera. Historia guztia odoltsua izan da, eta menpeko zen jendeak boterearen esku jartzen zuen zeukan guztia, baita bizia ere, ke-xarik gabe. Gizakia garai haietan konfinaturik bizi zen, bai espazio aldetik eta baita ikuspegi intelektualetik ere; jai, bizi eta hil berrogeita hamar metro koa droen barruan egiten ziren pertsona horiek, eta ez zekiten euren bizilekutik ehun kilometrorra zer gertatzen zen. Ez zeukaten ideiarik ere. Bazekiten agintzen zuen norbait bazela, eta hark esandakoa egin behar zutela. Eta horixe izan da jende askoren bizitza duela hamarkada gutxi arte. Eta, gaur egun ere, herrialde askok halaxe jarraitzen dute, erabateko boterea gutxi batzuek baitaukatete. Horrek pertsonak menpeko izatea dakar, pertsona mehatxatuak dira, beldurtiak, izutuak.

Baina heziketa jaso dugunok bada-kigu zer gertatzen den ehun kilometrorra, eta horrek laguntzera behartzen gaitu, arduratsuak izatera.

Heziketa jaso duen gero eta jende gehiago dago. Zer ekarriko du horrek?

Benetako heziketa jaso duen gero eta jende gehiago egoteak, gero eta jende libre gehiago egotea esan nahi du. Biharra asma dezakeen jendea izango da jende aske hori, eta hauxe izango da haien erroka: bestelako etorkizuna sortzea, bai Euskal Herrian eta baita munduan ere. Eta hori, etorkizuna asmatzea, historian lehenengoz posible da orain, heziketa jaso dugulako, hiritarrek garelako, eta ez menpekoak. Hiritar bakoitzak keinu bat egiten badu, pauso bat ematen badu, etorkizunaren norabidea aldatu ahal izango dugu, sistema baten bukaeran baikaude argi eta garbi.

Sistemak bukatu egiten dira; une jakin batean Berlingo harresia erori egin zen, eta inperio itzel hura amaitu egin zen, odol tantarik isuri gabe. Sistema hura berdintasunean oinarrituta zegoen, baina ahantzi egin zuen askatasuna, eta, horren ondorioz, ez zen bideraga-



ria. Gero, ordeko sistema bat ezarri zen, globalizazioarena, askatasunean oinarrituriko sistema, baina orduan ere berdintasuna ez zen kontuan hartu. Orain, prozesu horren amaieran gaude. Krisi sistemikoa ari gara bizitzen, hemen, Mendebaldean.

Zer rol jokatu du hezkuntzak sistemaren krisi horretan?

Benetako heziketa jaso baldin badugu, konparatu beharra daukagu. Lehen esan dut garai batean jendea konfinaturik bizi zela, eta ez zekiela zer gertatzen zen; ez zeukan ehun kilometrorra gertatzen zenaren ardurarik; jendea gosez hiltzen bazen ere, ez zen euren ardurara, eurek ez baitzekiten. Baina orain bai, orain badakigu. Eta jakite horrek konplize egiten gaitu, ez badugu gauzak aldatzeko ezer egiten. Orain bada-kigu munduan zer gertatzen den. Guk, hemen, doako heziketa jasotzen dugu; doako osasun-zerbitzua dugu. Baina, gizateriaren % 20k -18,5ek, zehazki-daukagu aukera hori. Eta hori ezin da horrela izan. Bost pertsonatik lau ongizate-espazio horretatik kanpo bizi dira, asko eta asko erabateko eskasian, asko eta asko gosez hiltzeraino. Eta gu, berriaz, lasai asko gaude, “gauzak horrela dira, eta kito” esaten dugu. Baina nola? Zuk badakizu zer gertatzen den, zuk badakizu urtebetetik bost urtera bitarteko 30.000-35.000 haur gosez hiltzen direla, FAOren datuen arabera, 60.000-

70.000 pertsona gosez hiltzen direla munduan. Guk, aldiz, gutxi batzuen segurtasunaren izenean, 4.000 milioi dolar gastatzen ditugu armetan, egunero-egunero. Ez da posible. Guztiok duintasunean berdina garela onartzen baldin badugu, ezin dugu beste aldera begiratu. Heziketa jaso baldin badugu, eta gauza horiek baldin badakizkigu, ezin dugu beste aldera begiratu, libreak eta arduratsuak baldin bagara, ardurara horrek arazoa dagoen lekura begiratzea behartzen gaitu. Hori da hezkuntza. Heziketak esan nahi du pertsona askak garela, eta geure pentsaeraren eta hausnarketaren arabera egiten ditugula gauzak; esan nahi du “ez” esatea: “ez, guk ez dugu gose- eta menpekotasun-egoera horiek eta lan-baldintza txar horiek bermatzen dituzten herrialdeekin negoziarik egingo. Ez, gu ez gara jende horren miseriez eta egonkortasun ezaz baliatuko geure burua aberasteko”.

Hortaz, heziketak ikusi nahi ez dugun hori ikustera behartuko gaitu?

Ikusezinak ikusten jakin behar dugu. Errealitatea sakon ezagutzen badugu, orduan aldatu ahal izango dugu errealitatea sakonetik. Horretarako, ikusten jakin behar dugu, baita ikusezina den hori ere. Bistan dagoena bakarrik ikusten badugu, albistegietan ateratzen diren albiste ikusgarriei bakarrik begiratzen badiegu, errealitate desitxuratu bat ikusiko dugu, eta guk gehiago

federico mayor zaragoza

E

“ Jakitea ez da aski, ekin egin behar dugu, egin eta eragin. Ezin gara ikusle hutsak izan, ez gara informazio-jasotzaileak bakarrik, lekuko jasankorrek eta axolagabeak. Dakigun hori zabaldu egin behar dugu, azaltzera ausartu behar dugu.

”

ikusibehar dugu: ikusgarria den horren atzean dagoen ikusezin hori, eta, horretarako, hausnartu egin behar dugu.

1985ean, Bernard Lown Kardiologiako irakasleak jaso zuen Bakearen Nobel saria. Medikuak, sintomak ez, diagnostiko osoa ezagutu behar zuela esan zuen saria jasotzeko ekitaldian; haren ustez, itxurari bakarrik erreparatuko balio, egoeraren zati bat ezagutuko luke soilik mediku horrek, eta konponbide partziala eskaini ahal izango luke. Aldiz, ikusezin den hori ikusteko gai izanez gero, ezinezkoa den hori egiteko gai izango ginatkeela esan zuen. Horixe da heziketa jaso dugun pertsonen misioa, ikasketa egokiak jasotzeko aukera izan dugunon misioa, ikusezina diren gauzak ikustea, ezinezkoak diren gauzak egiteko. Hori da heziketa independentearen misioa, muturreko jarreretatik eta jarrera itsuetatik urruntzea, dogmak baztertzea eta gauzak askatasunez egitea.

Egiteari eta ekiteari garrantzi handia ematen diozu. Heziketa ez da jakitea bakarrik, egitea ere bada, ezta?

Ekiten jakin behar dugu. Jakitea ez da aski, ekin egin behar dugu, egin eta eragin. Ezin gara ikusle hutsak izan, ez gara informazio-jasotzaileak bakarrik, lekuko jasankorrek eta axolagabeak. Dakigun hori zabaldu egin behar dugu, azaltzera ausartu behar dugu.

1992an, Unescoren barruan XXI. mendeko hezkuntzari buruzko batzorde bat eratu genuen, Jacques Delors buru zuena. Heziketa-prozesuak lau ikasketa-lerro izan behar zituela esaten zuen batzorde hark: ezagutzen ikasi; egiten ikasi; izaten ikasi, eta elkarrekin bizitzen ikasi. Horiek ziren heziketa-prozesuaren lau oinarriak. Eta nik bosgarren bat erantsi nion: ekiten ikasi. Ekitera ausartu behar dugu, daukagun jakinduria hori zabaltzeko gai izan behar dugu; izan ere, askotan, inork ez digu galdetzen, eta ez dugu dakiguna esaten. Nork daki heziketari buruz? Hezitzaileak. Bada, hari galdetu behar zaio heziketaz. Nork daki gai zientifikoez? Bada, zientzialariak. Ba horixe da

logikoa! Eta, gaurtik aurrera, biharra eraiki nahi badugu, elkarrekin egin behar dugu lan, eta inoiz ez boterearen esanetara. Sistema demokratiko batean, zentral nuklearrei buruz hitz egin behar bada, adibidez, logikoa litzateke gai nuklearretan adituak diren herrialdeko zientzialari onenei galdetzea. Haiek ezin dute isilik egon, badakite, eta azaldu egin behar dute jakinduria hori.

Ekiten jakin behar dela esan duzu, baina ausartzen ere jakin behar dela esan izan duzu, Horazioaren sapere auderi buelta emanaz.

1966an, Oxfordera irakasle iritsi nintzenean, konderriko ikurrak halaxe zioen: Sapere aude, ausart zaitez jakitera. “Bai jauna!”, esan nuen neure kautan. Jakitera ausartu behar dugu. Patologia molekularreko ikasketa-urte batzuen ondoren, handik atera nintzenean, ausartzen jakin behar genuela pentsatu nuen. Jakin arren ezertara ausartzen ez bagara, lehen bezala gaude. Ekiten ikasi behar dugu, eta ausartzen ikasi behar dugu.

Baina banakoek, hezitzaileek edo bestelako kaletarrek, zer egin dezakete gauzak aldatzeko?

Keinu txiki batek gauza asko aldatzen dituela pentsatu behar dugu. Barack Obama AEBko lehendakartzan ikusi nuenean, pentsatu nuen: “baina beltza da, beltz bat!”. Nik Ku Klux Klannengaraiko AEBezagutu nuen, jatetxe-etan “no blacks, no dogs” afixak ikusi nituen, eta orain, berriz, presidente beltza daukate. Zerbait gertatu da; baina zer, zer gertatu da? Bada, keinu txiki bat. Montgomeryko jostun baten keinu bat. Alabamako emakumea lanetik bueltan etxera zihoan 1961eko abenduaren hasierako egun batean, nekatu-rik. Autobusean zetozen, bereizkeria sustatzen zuten autobus haietako batean. Zuri bat sartu zen, autobusa beterik zihoan, eta beltzek altxatu egin behar zuten. Baina Rosa Parks ez zen altxatu. Rosa Parksek gau hura ez zuen etxean igaro, polizia-etxean igaro zuen; eta,

gero, ezin izan zuen Alabaman bizitzen jarraitu, Michiganera joan behar izan zuen, Detroitera. Baina keinu hark andre hura bizi zen inguruko apaiz bat inspiratu zuen. Martin Luther King zen apaiz hura, eta esan zuen beltzik ez zela gehiago autobusera igoko Alabaman. Eta ez dago ekonomiarena baino argudio hoberik. Hilabete gutxiren buruan, autobus-konpainiak gehiago ezin zuela-eta, zuriak eta beltzak bereizi gabe eseri ziren autobusetan. Bereizkeriaren aurkako mugimendua ekarri zuen keinu hark, eta, ondoren, legea etorriko zen, 1964an. Legearen aurretik Washington hirian izandako martxa handiaren amaieran, Martin Luther Kingek *"I have a dream"* esan zuen, eta, aldamenean, Rosa Parks zeukan. Eta urte batzuen buruan, Ku Klux Klauen AEBn presidente beltza dute.

1992ko dokumentua aipatu duzu, XXI. mendeko hezkuntzak nolakoa izan behar duen idatziz zenuten dokumentu hartan. Bada, nolakoa behar luke izan?

XXI. mendea, azkenean, jendearen mendea izango da. Eta horretarako hezi behar dugu. Orain arte, gutxi batzuek agindu izan dute, eta zer jarri du gizarteak? Hildakoak, normalki. Horixe da gizateriaren historia. Orain, lehenengo aldiz historian, gauzak ez direla horrela izango esan dezakegu. Zergatik? Bada, lehen esan dugunez, heziketak hiritar egin gaituelako, eta ez garelako gehiago menpeko izango. Pentsatzen duguna esan egingo dugu, eta esango dugun hori pentsatu egingo dugu. Ez gara esaten digutenarekin konformatuko, ez, ez dago etsimendua baino gauza okerragorik; hala esaten zuen [Jose] Saragok: "Pazientzia behar da, baina ez gehiegi". Pazientzia gehiegi baldin badaukagu, menpeko izango gara beti. Heziketa hiritar oso izateko bidea da, pentsatzen duten edo eztabaidatuko duten hiritarrak izateko bidea, eta aurrean dugun trantsizio historikoa egiteko gai izateko bidea. Trantsizio historiko horrek indarretik hitzetara eramango gaitu. Orain arte, historikoki, gerra prestatu da beti, armak eta armak, eta

indarra. Orain, arma horiek atzean utzi, eta gaiak eztabaidatzeko garaia iritsi da, jendea horretarako hezia baitago.

Zer garrantzi dute emakumearen rola eta teknologia berriek bakearen heziketan?

Heziketa da demokraziaren oinarria. Historian lehenengo aldiz, demokrazia sendoak ditugu, eta horretan zeresan handia daukate teknologia berriek, haiei esker demokraziak parte-hartzaileagoak dira. Gaur egun, teknologiei esker, ez daukat kontsulta bat egiteko baimena eskatu beharrik, teknologiak erabiliz, pentsatzen duena adieraz baitezake edonork. Ni hautestontzien maitale handia naiz, gazteek ez dute ulertuko, baina guk 35 urteko abstinentzia bizi izan dugu, eta hori denbora luzea da; orain, hautestontzi bat ikusten dudak bakoitzean hara noa korrika. Baina, era berean, hauteskundeetako bozka-zenbaketan oinarrituriko demokrazia ez da sendoa. Zenbatu egiten gaituzte, baina ez gaituzte kontuan izaten. Orain, hautestontzietara joan beharrik gabe, gure iritzia eman dezakegu, eta gure ordezkariak entzun egin behar dute esaten dugun hori. Oso garrantzitsua da hiritarrak isilik ez gelditzea. Liburu bat egin nuen, Delito de silencio izeneko, gauzak dakizkigunean isilik gelditzea delitua dela iruditzen baitzait. Hitz egiteko aukera eduki, eta isilik gelditzea delitua iruditzen zait. Orain, teknologiekin aukera daukagu pentsatzen duguna zabaltzeko. Eta, era berean, munduaren beste aldean gertatzen dena ezagutzeko aukera daukagu; gizon, emakume eta haur horiek nola bizi diren ezagutu dezakegu.

Bestalde, hor daude emakumeak; hemen, Euskal Herrian, eta munduan oso garrantzitsuak dira emakumeak bakearen heziketan. Munduaren historian ez dute lekurik eduki emakumeek orain arte. Gaur egun, oraindik, boterean dauden gehiengo nagusia gizonetakoak dira, baina, orain, emakumeak hurbiltzen ari dira botere-guneetara. Haiek erabakiguneetara iristen diren egunean gauzak aldatu egingo dira. Bi-

zitzarekiko errespetua emakumeari datzekion ezaugarria da, ez du indarkeria halako erraztasunez erabiltzen; nahiago du hitza, maitasun-keinu bat; emakumea ezinbestekoa da bakearen kulturarako. Ez da egongo bakerik ez badugu benetako berdintasuna lortzen, guztiok baikara berdina duintasunean.

Bakearen heziketan ari zara, gaur egun, buru-belarri. Zein dira bakearen heziketaren giltzarriak?

Gaur egun arte, heziketa mehatxuan oinarritu da, zigorrean eta beldurrean. Baina konturatu gara heziketak prozesu askatzailea izan behar duela, eta hori ez da soilik eskolari dagokion lana. Heziketa fenomeno orokorra da, guztiok dagokiguna, guztiok hartzen eta ematen dugu, eta guztiok daukagu heziketa on baten ardura. Gaur egun, konparatzeko gaitasuna daukagu (hemen gertatzen dena han gertatzen denarekin), parte hartzeko teknologiak dauzkagu, eta emakumeak dauzkagu. Horiexek dira bakean oinarritutako etorkizunerako aldagaiak. Etorkizunera doan bide hori argitzen ari gara, baina bide hori guk nahi dugun bidea izango da; guk, eta ez beste inork, ez du bide hori aukeratuko.



Inmaculada ikastetxean partaidetza lantzen

Inmaculada ikastetxea Abetxukun dago, Gasteizen. Buenos Airesko Maria Sortzez Garbiaren Alabek sortu zuten, 1959an. Sorrerak kongregazioak zuen behar bati erantzun zion: inguru sozioekonomiko zailtan heziketa-guneak sortzea eta behar sozialei erantzutea.

Eskolan, Otik 16 urte bitarteko neska-mutilak aritzen dira, eta lerro bakarrekoa da. Ikasle gehienak auzokoak bertakoak dira, eta gehienek jatorri erdalduna dute. Auzoa, ekonomikoki, maila ertain eta ertain-baxukoa da, eta behar garrantzitsuak dituen behe-mailako taldea du, gainera.

Joan den ikasturtean, ikastetxeko irakasleek prestakuntza- eta berrikuntza-egitasmo berria egin zuten. Haren abiapuntuan, 2009-2010 ikasturteko ebaluazio-diagnostikoaren emaitzak eta Urteko Elkarbizitza Planean egin-

dako Tutoretza Planaren berrikuspenak daude. Testuinguru horretan jaio zen urtebetez abian izan duten esperientzia.

Inmaculada ikastetxekoek 2010-2011 ikasturtean egin zuten Elkarbizitza Plana. Interes handia sortu zuten lan hori egiteko egin behar izan zuten prestakuntzak eta ezarri zituzten lehentasunek. Gainera, Tutoretza Plana erabat egituratuta eta nahiko sistematizatuta zuten. Horiek guztiak oinarri ona izan ziren ondoren etorri ziren egitasmoetarako.



Abetxukuko ikastetxeko irakasleek joan den ikasturtean egin zuten berrikuntza- eta prestakuntza-egitasmoak bi jarduera zituen: alde batetik, gaztazken kudeaketa; eta, bestetik, *Guztition konpromisoa* deritzon tutoretza-ekintza. Garai berean, Berritzegunean antolatutako *Partaidetzarako eta Lan-ikidetzarako gaitasunak* mintegian parte hartzea erabaki zuten, han planteatzen zen gidaritza-lanaren egitasmoa eskolako proiektu horretarako lagungarri izango zitzaielakoan.

Erronka onartu zuten, “prestakuntzako bi jardueren helburuekin bat zetorrelako”. Egitasmoak proposatu zituen helburuen artean, gaitasun soziala eta herritarra edota autonomia-gaitasuna sustatzea zegoen.

Horiek guztiak, batez ere, hiru ekintzen bidez sustatu nahi ziren: lehenik, hezkuntza-komunitatea osatzen duten kide guztien arteko komunikazioa eta parte-hartzea lagunduz; bigarrenik, norbanakoen balioak eta balio unibertsalak eskuratzen lagunduz; eta, azkenik, hiru estamentuen artean konfiantza-giroa eta elkarren arteko harreman horizontalak bultzatuz. Hiru estamentu horiek hauek dira: familiak, ikasleak eta irakasleak.

Erronka onartzeko beste arrazoia, berriz, hauxe izan zen: proiektua lantzeko proposatutako modua ekintza tutorialaren esparruan zituzten helburuak asebetetzeko lehen urratsa zen. Esparru horretan kokatzen ziren ondorengo ideiak: irakasleak lan kooperatiboaren beharraz ohartzea; ikastetxeko ikasleak irakasle guztien ikasle direla jabetzea, eta ez soilik tutorearenak; eta irakasle izateak, neurri batean, orientatzaile, hezitzaile eta ia-ia tutore izatea dakarrela ikustea.

Egitasmoan, DBHko irakasle guztiek parte hartu zuten: izan tutore ala ez. Ikasleekin eta irakasleekin batera, gai-

nera, irakasle ez diren langileek eta gurasoek ere parte hartu zuten. Parte-hartze hori erreala eta aktiboa izan zedin, bestalde, “beharrezko ikusi zituzten oinarritzko bi faktore”: komunikazio-bide horiek existitzea eta bide horiek erabiltzea.

Ikastetxean, gaur egun, “gure esku ditugun bitarteko guztiak erabiltzen ditugu: IKTekin zerikusia duen guztia, bloga, dokumentu partekatuak, posta elektronikoa, eta abar” argitu du Mariolak, eskolako orientatzaileak. “Era berean, badugu iradokizunetarako postontzia eta irakasle guztien ordutegia eskuragarri dago”.

Garrantzi handia eman zioten prestakuntzari. Izan ere, “parte-hartzea errealista eta bidezkoa izan dadin, eta ikasleen adierazpen benetakoa eta libre gerta dadin –ez, soilik tutoretza-orduan, baizik eta ikasgai guztietan, zehar-lerro gisa–, parte-hartzea bultzatuko duten dinamikak egotea garrantzitsua iruditzen zaigu, eta, horretarako, oinarritzko prestakuntza behar da”.

2004an hasi ziren Inmaculadako irakasleak Ekintza Tutorialaren Plana egiten; haiek egindako plana da, goitik behera. Planaren osatze-prozesu horretan, beraz, denek parte hartu zuten: iritziak eman zituzten, eztabaidatu egiten zuten. Iaz, esaterako, bi jarduera egin zituzten: alde batetik, partaidetza-egitasmoa gidatu zuten; eta, beste alde batetik, tutoretza-ekintzan parte hartu zuten, eta irakasle guztiek tutore funtzioa tutoreekin partekatu zuten. Lan horretatik hainbat ondorio atera zituzten:

1. Garrantzitsua da ikaslea gure ikasgaiaren didaktikan prestatzea, baina hori bezain garrantzitsua da era integrean prestatzea.

2. Garrantzitsua da, era berean, irakasleak bere lanean, bere ekintzan, tutoretza-funtzioa argitzea.

3. Garrantzitsuak dira ikasleei zenbaitetan ematen zaizkien beharren erantzunak. Arlo akademikoan ematen direnekin batera, arlo pertsonalean, afektiboan, jendarte mailan dituzten arazoetan, eta abarretan. Eta erantzun

horiek ez dituzte tutoreek soilik eman behar, baita gainerako irakasleek ere.

4. Eta, azkenik, oso garrantzitsua da ikasleak irakasleengana gerturatzea errazten duten baldintzak sustatzea.

“Egiten ditugun jarduera guztien oinarrian ikasleak daude, ez ikasgaiak; ikastetxeko politika estrategikoaren barnean dago hori”, gaineratu du Josek, Arte Dramatikoko irakasleak. Ondorioz, tutoretza-ekintza osoa Ikastetxeko Plan Estrategikoaren barruan dago. Plan horrek helburu eta ekintza estrategiko zehatzak ditu. Horiek guztiak berrikusteko, ebaluazio-adierazle batzuk erabiltzen dira.

Familiekin egindako lana

Familiekin duten harremana oso estua da. Arlo akademikoa gainditzen duen jarraipena egiten dute: telefono-deiak, bilerak eta bestelako harremanak oso ohikoak dira, eta harreman horiek ez ditu soilik tutoreak egiten. Beste arloetako irakasleak, normalean, tutorearekin harremanetan jartzen dira, eta hark egiten du lehen hurbilketa. Horixe izan zen, hain zuzen, iazko egitasmoa: tutorearen erantzukizunak arintzea, eta irakasleek funtsean beraienak diren erantzukizunak hartzea. Azken batean, askotan, tutorea bitartekari bat besterik ez baita izaten.

Iaz, Elkarbizitza Behatokiak irakasleak eta hainbat guraso prestatu zituen. Ikastetxea, izan ere, txikia da, eta ezin du guraso guztiak prestatzeko ardurua hartu. Lehen prestakuntza hartan parte hartu zuten gurasoak “beste gurasoak prestatzen ari dira, gogo betez”, Mariolaren arabera.

Ikasleak gustura

Irakasleek elkarren artean banatu zituzten jarduerak, gehienbat gustuen arabera eta irakasten zituzten ikasgaiekin zuten harremanaren arabera.

Ikasleak oso gustura aritu ziren. Izan ere, lan egiteko dinamika desberdina zen; “dinamikak askoz sortzaileagoak dira”, zehaztu du Inñigok, Gorputz Hezkuntzako irakasleak. Ikasleentzat dena positiboa izan zen: “Haientzat oso

aberasgarria izan zen pertsona bere osotasunean ikustea, eta ikuspuntu horretatik lan egitea ikasgai guztietan”, gaineratu du.

Matematika arloan, esaterako, “parte-hartzea landu genuen”, kontatu zuen Marianek, Matematikako irakasleak. Jarduera egin zutenean, parte-hartzeari buruz ondorio interesgarriak atera zituztenez, horma-irudi bat egin zuten haiekin gelan. Horren ondoren, “talde txikitik lan egiten zutenean, parte-hartzea handiagoa zela ohartu nintzen”, eta, gainera, erreferentzia gisa erabiltzeko balio izan zion: “Nor bait parte-hartzeko urduri edo ikusten bannuen, horma-irudian zer jarri genuen gogoratzeko esaten nion”.

Behar bereziak dituzten neska-mutilekin aritzen da Elena. Jarduera horietako batzuk egitea egokitu zitzaizkien haiei ere, eta, Elenaren esanetan, “irrika handia zuten jakiteko ongi egin zituzten ala ez, zer iritzi zuten besteek... oso gustura aritu ziren”.

Adolfok, Informatikako irakasleak,

ikastetxeko alderdi parte-hartzaileari buruz lan egitea proposatu zien. *Google* bidez inkestak egin zituzten, jendeari galdeketak egin zizkioten, eta abar. “Beraiek egin zuten eta, balio teknikoaz gain, gauza gehiago ateratzeak asko aberasten du. Askotan liburuekin, testuarekin eta abarrekin geratzen gara, eta ahaztu egiten dugu gauza horietatik beste zerbait atera dezakegula”, hausnartu du.

Irakasleek, berriz, egitasmo horren bidez ikusi zuten, berriro ere, zein aberatsa den elkarrekin koordinatzea eta talde-lanean aritzea.

Hiritartasunerako Hezkuntza ikasgaietan lantzeko, interesgarriak iruditu zaizkio hainbat jarduera Begoña ahizpari, ikasgai horretako irakasleari. Hala ere, “horretaz gain, ez nuke baztertuko jarduera horiek beste ikasgai batzuetan txertatzea”. Irakasle horri oso aberasgarria iruditu zitzaion: “Hain parte-hartzaileak diren jarduera horiek ez lirateke ikasgai soil batera mugatu behar, irakasleek irakasle guztien aurpegiak

ikusita behar dituzte”.

Egin eta ikusitako guztiak zer pentsatua eman die: “Ez ditugu eskolak erakargarriak egiten, eta, beraz, egiten dugunaren dinamika aldatu beharrean gaude. Jarduera horiek gustukoak badituzte, ikasgaiaren barruan kokatzeko eta etekina ateratzeko zer aldatu behar dugun pentsatu behar dugu”. Ikasleen motibazioan eragin dute, bereziki, jarduera horiek. “Hausnartu beharko genuke zer egin behar dugun ikasleak arlo teorikora ez ezik, balioetara eta beste mota bateko gauzetara erakartzeko”, dio Adolfok.

Generoa eta parekidetasuna, ardurara, konpromisoa, lan kooperatiboa eta enpatia dira egitasmo horren bidez landu dituzten balioetako batzuk. Ikusitakoak ikusita, eskolan egiten dutena ikasleengan, haien interesetan eta haien motibazioan nola eragiten duen pentsatzen ari dira Inmaculada ikastetxeko irakasleak. ●





IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA PROZESUEK
KEZKATZEN ZAITUZTE ETA HONEN HOBEKUNTZAN
LAN EGIN NAHI DUZU?"

BERRIMET. BERRIKUNTZA DIDAKTIKO-METODOLOGIKOKO PROIEKTUEN
GARAPENA ETA KUDEAKETA HEZKUNTZA ERAKUNDEETAN *Unibertsitate
Masterra. %100 Online.*



MUNDU GLOBALIZATUAK HEZKUNTZAN ERAGINDAKO
EGOERA ELEANITZ ETA KULTURARTEKO
BERRIETARAKO PRESTATUTA EGON NAHI DUZU?

EKOMU. HEZKUNTZA TESTUINGURU MULTIKULTURAL ETA ELEANIZTUNETAN
Unibertsitate Masterra. %100 Online.



IKASI DUZUN GRADUA IKASI DUZULA, IRAKASLE
MODUAN IKUSTEN DUZU ZURE BURUA?

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN, BATXILERGOAN, LANBIDE
HEZIKETAN ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN IRAKASLE GISA ARITZEKO
GAITZEN DUEN *Unibertsitate Masterra.*



EUSKAL KULTURGINTZAREN TOPAGUNEAN PARTE
HARTU NAHI? ATZOKO, GAURKO ETA BIHARKO KULTURGINTZAREN
TRANSMISIOA: ESPERIENZIAK ETA KUDEATZEKO BIDEAK.

EKT. EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA *Aditu Titulua.*

UEUren UDAKO IKASTAROAK 40

Lau hamarkada euskara eta unibertsitateari ekarpenak egiten

Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) Udako Ikastaroek 40. urteurrena beteko dute aurtengo udan. Donibane Lohizunen egindako lehen saio hartatik, euskara eta unibertsitatean gauzak asko aldatu dira, hein handi batean, UEUk egindako ekarpena medio. Urtemuga hori ospatzeko-egoera ekonomiko larriari aurre eginez- ikastaro sorta mardula antolatu du UEUk: 40, guztira.

Aurtengoa, urte gazi-gozoa izaten ari da UEUrentzat. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak partida izenduna kendu izanak egoera ekonomiko larrian utzi du erakundea, baina aldi berean, bazkide eta ingurukoen babes izugarria jasotu du. Auzolan horren isla da aurtengo Udako Ikastaroen eskaintza, zenbaki sinbolikoa 40a aintzat hartuta, eskaintza mardula egingo baita: azken urteotako indartsuena. UEUko zuzendari Karmele Artetxeren esanetan, “Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakia okerra iruditu zaigu, eta datorren urterako hausnarketa egin dezan eskatzen diogu. Aurretik ere egoera larriak bizi izan ditugu, eta orduan bezala, gure lanak jarraitu behar duela argi dugu. Izan ere, gure bazkide eta gertukoek erakusten ari zaizkigun babes eta laguntza izu-



garria izaten ari da, eta horrek beste 40 urtez aurrera egiteko indarra ematen digu”.

Hain zuzen ere, 70eko hamarkada hasieran Ipar Euskal Herrian sortu zen Udako Unibertsitate bat sortzeko ideia, Baionako Euskal Asteetatik eratorria. Manex Goihenetxe, Piarres Xarriton eta Jean Haritxchelharrek bultzatuta, besteak beste: abuztuaren 28tik irailaren 8ra bitartean egin zen Udako Euskal Unibertsitatearen lehen ekitaldia, Donibane Lohizuneko Maurice Ravel ikastetxean. Orduetik, gauzak asko aldatu dira bai euskara eta baita unibertsitatean ere, hein handi batean, UEUren ekarpenei esker:

- Hasieratik Euskara Batuaren alde egindako apustu irmoa.
- Jakintza-maila bakoitzeko euskarazko hiztegi-teknikoaren garatzea.
- Euskarazko irakasle corpusa osatzea.
- Euskal komunitate zientifikoaren bilgune-lanak egitea.
- Erakundearen izaera malgu eta medio, proiektu berritzaileak, euskarrian zein edukian, martxan jartzeko gaitasuna.

- Unibertsitate-mailako gaiak gizaratearen esku jartzea eta bertako beharrei egokitutako eskaintza egitea: ikastaroak, testu-liburuak, IKT proiektuak.

- Euskal Unibertsitatearen aldeko lana eta aldarria.

40 ikastaro 40. urteurrenean

Goian aipatu bezala, UEUk 40 ikastaro antolatu ditu Udako Ikastaroen 40. urteurrena ospatzeko. Ekitaldi handirik ez dute egingo, “baina urte hauetan guztietan udako ikastaroetan parte hartu duten pertsonen bizipenak jasotzeko asmoa daukagu; izan ere, Udako Euskal Unibertsitatea, jakintzaz haratago, pertsonak osatzen dute. Horretaz gain, gure asmoa da aurrean ahalik eta jende gehiena etortzen ikastaroetara, bai UEU ekonomikoki laguntzeko, baita urteurrena ospatzeko ere. Egiten dugun eskaintza begiratu eta ziur gaude gustuko ikastaroa topatuko duela edonork. Hori dela eta, beharpenak eta diruz laguntzeak eskaini ditugu, jende guztiak etortzeko aukera izan dezan.

Xehetasun guztiak www.ueu.org



helbidean topatuko dituzue”, azaldu du Karmele Artetxek. Matrikula maiaztaren 14an irekiko da.

Udako ikastaroen zerrenda

Artea eta Musika

- *Marrazki bidez kontatuko dizut!* Eibar, ekainak 28-29.

- *Musika-bezkuntzarako baliabide tekniko eta espresiboak.* Baiona, uztailak 4-5.

Giza Zientziak

- *Txillardegi testuz testu.* Eibar, ekainak 27-29.

- *Sozialismoa XXI. mendeko Euskal Herrian.* Iruñea, uztailak 16-18.

- *Euskal emakumeen historia osatzen.* Eibar, uztailak 9-10.

- *Nafarroako konkista berrikusten.* Iruñea, uztailak 16-18.

- *Euskararen berreskurapenaren esperientzia eta bizkuntza gutxituen biziberritzea.* Iruñea, uztailak 16-17.

- *Lazarragaren testuak DBHn erabiltzeko.* Eibar, uztailak 11-12.

- *Literatura Unibertsala itzultzen.* Eibar, ekainak 26-27.

Gizarte Zientziak

- *Irakaskuntza kooperatiboa Natur Zientzietan, erreken kontserbazio-egoera aztergai.* Eibar, ekainak 26-28.

- *Iraultzaileak bezten: bezkuntza aldaketa sozialerako tresna gisa.* Iruñea, uztailak 16-17.



- *ETBk 30 urte.* Eibar, ekainak 28-29.

- *Komunikazio-tailerra elkarreentzat.* Eibar, ekainak 28-29.

- *Antzerkigintza bezkuntzan: sordezagun elkarrekin komunikatzeko bide bat.* Baiona, uztailak 4-5.

- *Kontu txikiak eta euskaraz mintza eta jolas tailerra.* Baiona, uztailak 4-5.

- *Ebaluazioa Moodle-n: kalifikazio-liburua eta tailerra.* Eibar, ekainak 28-29.

- *Sexologia, gazteak eta sare sozialak.* Eibar, uztailak 9-11.

- *Sexu-bezkuntza eta desgaitasuna.* Iruñea, uztailak 16-17.

- *Soziolinguistika: kontzeptu nagusiak (tailerra).* Baiona, uztailak 4-5.

- *Parte-bartzea aztergai: hausnarketarako gunea.* Baiona, uztailak 4-5.

- *Herri-mugimenduak eta militantzia-ereduak.* Eibar, uztailak 9-10.

- *Batzarra: jatorrizko antolakuntza-erakundea etorkizunerako bermea.* Iruñea, uztailak 16-17.

- *Identitate di-soluzioak: narrazio performatiboak generoa eta euskal identitatea uztartuz.* Eibar, uztailak 11-12.

- *Elikadura burujabetza eta Agroekologia.* Baiona, uztailak 4-6.

Ingeniaritza eta Teknologia

- *Bioeraikuntza: bizitzeko eraiki.* Eibar, uztailak 11-12.

- *Scratch-ekin kompetentziak lantzen.* Eibar, uztailak 12-13.

- *Zientzia-bezkuntzarako tresna digitalak: Google Earth eta Maps.* On line, ekainak 29-uztailak 18.

- *Smartphonetarako aplikazioen programazioa Titanium erabilita.* Eibar, ekainak 26-27.



- *Murgildu robotikan LEGO NXTrenkin.* Eibar, uztailak 9-11.

Osasun Zientziak

- *Kannabisa: eraginak osasunean eta erabilera terapeutikoak.* Eibar, ekainak 26-27.

- *Zentzumenen terapiak: psikoaromaterapia, musikoterapia, irudikapen sortzailea...* Eibar, uztailak 11-13.

- *Gorputz sortzailea: gorputz eta mugimenduaren inteligentzia.* Baiona, uztailak 4-6.

- *Haur-psiologia: gaurko haurrak etorkizuneko helduak.* Iruñea, uztailak 16-17.

- *Coaching-erako sarrera.* Eibar, uztailak 26-27.

- *Aldaketa-prozesuetarako gakoak: konfiantza eta autoestimua.* Iruñea, uztailak 16-17.

- *Egoera kritikoak gainditzeko teknikak.* Baiona, uztailak 4-5.

Zientziak

- *Mendiko teknikak basabizitzaren ikerketan. Ikastaro praktikoa Pirinioetan.* Iruñea, uztailak 16-21.

- *Hondakinen kudeaketa eta tratamenduak.* Eibar, uztailak 9-10.

- *Geogebra erabiltzen ikasi: hastapenak.* On line, ekainak 26-uztailak 18. ●

ZERKI *Kirol Zerbitzuak*



Ikasturte amaierako festak



Puzgarriak



Joko-jolas eta ekintza
ezberdinen antolaketa



Eskola Kirola



Era guztietako begiraleak: egonaldiak, txangoak, udalekuak...

Aisialdi hezitzailea zeure neurrira!!

Mugitegi Industrialdea, C-18
Urretxu (Gipuzkoa)
E-maila: zerki@live.com
Tel: 678 813 208

Eraginkorra izan al daiteke entrenamendu mentala hezkuntzan



Entrenamendu mentala meditazio-sistema bat da, nork bere barruan begiratzeko. Gauza guztien jabe garela dirudien jendarte honetan, askotan, ez gara geure buruarekin ongi sentitzen. Zer da, orduan, benetan falta zaiguna? Bada, askotan barrua betetzea falta zaigu.

Ikasle, langile edota guraso eginkizunean, gure errendimendua gero eta hobea izatea eskatzen digu jendarteak. Eta, horri erantzuteko, prestakuntza behar dugu. Ikasleei, haur direnetik, errendimendu altua eskatzen zaie; zer esanik ez, ikasketa orokorrez gain, bes-telako ikasketak egiten ari badira: musika, atzerriko hizkuntza, eta abar. Langileei, berriz, lansari beraren truke, produktibitatea, kalitatea, sormena eta beste hamaika eskakizun gehitu zaizkie. Baldintza horietan, asko areagotu dira ikasle, langile, guraso edota seme-



Urko AROZENA

MUSIKENEO PERKUSIO-IRAKASLEA, IRUNGO UDALEKO
TXISTULARI TALDEKO ZUZENDARIA ETA
ENTRENAMENDU MENTALEKO IRAKASLEA

alaba bihurtzerakoan sortu diren gatazkak. Horiek guztiek nabarmenki handitu dute bizitzaren gaineko presioa; eta nekea, haserrea, estresa, energia-gabezia, gogo eza eta beste hainbat

elementu agertu dira gure egunerokotan. Gehienok sentitu dugu, ondorioz, antsietate motaren bat gure bizitzan.

Antsietate horiek jan ez gaitzaten, ikaragarri eraginkorra da barrura begiratzeara. Horretarako, entrenamendu mentala sistema ona izan daiteke, ez, ordea, bakarra. Meditazio-sistema asko daude; haien arteko bat da entrenamendu mentala. Izen asko izan ditzakete: yoga, PNL, mind fullness, sofrologia, bistaratze sortzailea, irudimen gidatua, kontrol mentala, coachinga, eta abar. Ez dut uste sistema bat bestea baino hobea denik, norberak aurkitu behar du berarentzat egokiena dena. Esango nuke entrenamendu mentalak beste sistemen aurrean duen abantaila azkartasuna dela: begiak itxi, alfa egoerara joan, barruan zer dagoen ikusi, eta landu.

Aspalditik dakigu geure garunak ez

Antsietate horiek jan ez gaitzaten, ikaragarri eraginkorra da barrura

begiratzea. Horretarako, entrenamendu mentala

sistema ona izan daiteke, ez, ordea, bakarra. Meditazio-sistema asko daude; haien arteko bat da entrenamendu mentala.

dituela bereizten benetan gertatzen ari dena eta imajinatzen ari garen hori. Hainbat teknika erabilia, guk geure garunari sinestaraz diezaiokegu ikaragarri ongi pasatuko dugula, esaterako. Jendarte honetan, gauza asko egiten dira jendearen aurrean; irakasle-lana, adibidez. Zenbait teknika erabilia, zuzeneko lan hori hobetu egin daiteke, lasaituz, ongi egonez, eta abar. Kirol-munduan teknika horiek guztiak oso ezagunak dira, eta maiz erabiltzen dira, errendimenduan eragin zuzena dutelako. Teknika guztiak dira interesgarriak hezkuntza-arlorako, pertsoneri begira interesgarriak direlako, baina, nire ustez, azken hori (errendimendu motibatu) bereziki interesgarria da eskolentzat.

Kirol-arloan frogatu dute kirolariek gehiago aurreratzen zutela ekintza horiek begiak itxita, erlaxatuta eta entrenamendu mentalaren pauso guztiari jarraituta eginez, fisikoki eginda baino. "Begiak itxita" egitea, fisikoki 12-15 aldiz egitearekin berdindu izan dute ikerketa zientifiko batzuek. Ongi eginez gero, ikaragarria da ordu erdian zenbat ordutako lan fisikoa egin daitekeen.

Hori guztia ikasleei aplikatuta,

hainbat gauza ekarriko ditu: ikaslea gustura egotea, lehiaketa irabaztea, bi gauza batera egin ahal izatea, eta abar. Ondorioz, ahalmen handiko gizon-emakumeak lor daitezke, taldean hitz egiteko gaitasuna dutenak, estresik gabekoak, gizarteratuak, lasaiak, erlaxatuak, pozez gainezka bizi direnak.

Eta horrek guztiak zer ekar diezaieke hezkuntza-antolakuntzei?

Nire ezagutzan, gehienetan, errendimendua edo beste hainbat arlo hobetzeko egiten diren ikerketek informazioa dute ardatz nagusi: informazioa nola atondu, gero modu egokiagoan baneratzeko, eta abar. Oso gutxi erreparatu izan diote, ordea, informazioa jaso behar duenari. Ez ote litzateke hobe subjektua ahalik eta egokien jartztea, eta, gero, informazioa xurgatzeko modu eraginkorrenak bilatzea?

Tekniken bidez hauxe lortzen da: pertsona lasai egotea, eta garuna kontzentrazio-maila gorenean egotea. Zer gertatzen da, orduan? Bada, garuna kontzentrazio-maila gorenean dagoenean, informazioa askoz hobeto jasotzen duela, eta askoz hobeto berreskuratzen duela. Ondorioz, askoz emaitza hobeak lortzen dira: denbora gutxiagoan eta etxean ahalegin gutxiago eginez.

Zer lortuko genuke teknika horiek erabilia, gazteei begira, hots, etorkizuneko gizakiei begira?

Pertsona horiek beren burua gehiago ezagutzea eta maitatzea lortuko genuke, hasteko, eta beren burua gehiago lasaitzea, beren egoeraren kontzientzia handiagoa izatea: urduri jartzan ari direla sentitzen dutenean, arnasa hartu eta zer ikasi duten hausnartzea, gogoan hartzea; arazoa zein den galdetzea beren buruari, eta arazorik baldin badago, konponbiderik ba ote duen pentsatzea... Eta konponbiderik baldin badu, ez dago, jada, arazorik. Barruko su txikitzailea desagertu egin-go litzateke era horretara jokatuz.

Ikastetxeetan, meditazio transzendentaren alorrean egin izan dira ikerketak (1971tik gaur egun arte, AEBn). Eskola gatazkatsuetan probatu zuten, eta, ikasleek, ondoren, eskatu egiten zuten teknikak errepikatzea. Euren buruari kasu eginez, ongi sentitzen ziren ikasle horiek, eta irakasleak oso pozik zeuden emaitzekin.

Teknika asko landu daitezke ikasleekin, baina ez dago zertan denak egin. Hasteko, goizean, garuna lasaitu, indarberitzeko ariketa egin eta euren buruari mezu hauxe eman diezaioke: "Gaur ikaragarri erne egongo naiz, eta



pozik". Ondoren, beraiek egin dezakete eguerdian eta gauean, etxean. Aipatutako ariketa hori egiteak egunaren pertzepzioa aldatu egingo du, poliki-poliki ikaragarri erne eta pozik dagoela ohartzen joango da!

Sistemak hainbat baliabide eta teknika berezi ditu, eta beste hainbat onartzen ditu. Gure gorputza indarberritzeari dagokionez, jada zabaldua dauden indarberritzeko ariketa ugari aurki genitzake. Bestela, eta nahi izanez gero, gure gustukoa den bat erabili dezakegu. Entrenamendu mentala hainbat teknikaren bilduma bat da.

Helburuak lortzen laguntzeko tresna-bilduma

Entrenamendu mentalak proposatzen duen tresna-bildumak hainbat helburu lortzen lagun diezaguke, hala nola:

- Beldur eszenikoa gainditzen.
- Besteen aurrean gure burua eta gure proiektuak ziurtasunez defendatzen.
- Azkarrago eta sakonago ikasten.
- Geure burua maitatzen.
- Benetan nahi duguna zer den jaketzea, eta horren bila joaten.
- Gure memoria nabarmenki hobetzen.
- Estresa desagerrarazten.
- Gure gorputza energiaz betetzen.
- Gure gorputza indarberritzen.
- Lo gozoa egiten.
- Ametsak programatzen.
- Ametsak aztertzen eta haietatik ikasten.
- Kide eta lagunekin izan ditzakegun gatazkak baretzen eta bideratzen.
- Inguruko energiak gure alde jartzeko.
- Bihozberagoak izaten.
- Geure burua eta, aldi berean, ingurukoak errespetatzen.

Teknikak era errazean egin daitezke. Hona hemen horietako hiruren adibidea:

1. **INDARBERRITZEA:** indarberritzeko, lehenik eta behin, garunaren

abiadura moteldu egin behar da. Kontuan izan garunak informazio pila duela. Hori lortzeko, begiak itxi eta garuna alfa egoeran ipini behar da, 7-14 hertzetan. Egoera hori da, hain zuzen, esnatzerakoan dugun puntua. Ondoren, mentalki esango diegu gorputzeko atalei indarberritzeko. Ariketa hamaika eratarik egin daiteke: yogien sistemaren bidez, Jakobsonen erlaxazioaren bidez, eta abar.

2. **ISPILUAK:** bistaratze batzuk egiten dira, beste hainbat gauzaren artean, bakoitzak bere bizitzan nahi duena egiten duen edo inguruak agintzen diona egiten duen ohartzeko. Hor agertzen dira beldurrak, eta abar. Nork bere burua ikus dezake ispilu horietan, eta bere buruarentzat nahi duena eska dezake. Azkenean, poliki-poliki, beldurrak kentzea lortzen da, eta lanaren zati handi bat egina dago jada. Izan ere, beldurrek ikaragarri mugatzen gaituzte. Ispilu horiek, beraz, beldurrak gainditzeko eta benetan zer nahi dugun argitzeko erabiltzen dira. Bizitzak oztopoak jartzeko dizkigu, baina horri aurre egiteko era asko daude. Horrelako teknikak erabilia, barrura begiratzen hasten gara, eta bilatzen eta ulertzen hasten gara. Barruan ditugun gauzak garbitzeko modu bat da.

3. **ESALDI POSITIBOAK:** garuna etengabe ari zaigu mezuak ematen. Garai batean, mezu horiek balio zuten arrisku-egoeren aurrean babesteko; hori gure garunaren lana da. Telebista negatibobaten eran ibiltzen da normalki, gure arreta nahi izaten du, eta ona da hori lortzen: ona benetan! Hori gainditzeko hainbat sistema daude. Izan ere, daukagun egoera daukagu, baina gu pozik baldin bagaude, errealitate horretaz dugun pertzepzioa bestelakoa izango da.

Askotan gertatzen zaigu, asko eta ongi prestatu arren eta asko ikasi arren, azterketaren unera iristen denean, blokeatu edo urduri jarri garela ez dugula ahal genuen guztia erakusterik izan. Meditazio-tekniken bidez, mailak gora edo behera egitea lor dezakegu.

Nor bere buruarekin hobeto egote-

Tekniken bidez hauxe lortzen da: pertsona lasai egotea, eta garuna kontzentrazio-maila gorenean egotea. Zer gertatzen da, orduan? Bada, garuna kontzentrazio-maila gorenean dagoenean, informazioa askoz hobe jasotzen duela, eta askoz hobe berreskuratzen duela.



ko teknikak besterik ez dira, gure berezko baliabideak era egokiagoan erabiltzea da gakoa, lasai egoteko eta benetan nahi dugun horren bila joaten laguntzeko. Teknika horien bidez, ari garen horretan gure inplikazioa erabatekoa izatea lortuko genuke, energia ere erabatekoa izatea. Emaitzak ikusgarriak dira, ez garelako egiten ari inguruak markatu diguna, baizik eta guk nahi duguna.

Beste sistemen ondoan, aldea azkartasunean eta eraginkortasunean dago. Gure jendartean produktibitateak agintzen du. Teknika horien bidez, lasaitasuna eskuratzen da "atzorako", eraginkortasuna lortzen da "atzorako", gauzak argitzen dira "atzorako" eta, azkenean, makina sortzaile bihurtuko gara, "atzorako". Hori bai, nahiz "atzorako" prestatzeko gaitasuna eduki, hainbeste maitatuko dugu geure burua, non guk erabakiko dugun egindako lana noiz, non eta nola erakutsi besteei.

Entrenamendu mentalaren gaineko informazio gehiago eta teknikak egiteko argibideak:

www.entrenamendumentala.blogspot.com/p/sarrera.html



IRRRIEN LAGUNAK KLUBA

irrienlagunak.com



ZATOZTE ZERAINGO IRRRIEN LAGUNAK ATERPETXERA

- * GOZATU NATURAZ GIPUZKOAKO BIHOTZEAN
- * EZAGUTU ZERAIN PAISAIA KULTURALA IRRRIEN LAGUNAK KLUBEKO PERTSONAIEN ESKUTIK (LARGABISTA, MARTINBER, MARIKALANBRE...)
- * EKINTZA DIBERTIGARRI ETA HEZITZAILEAK: MUSEOA, ZERRATEGIA, MEATEGIA, EZTIGINTZA, GAZTAGINTZA...
- * FAMILIAK ETA TALDEAK ASTEBURUTAN
- * IKASTETXEAK ASTEAN ZEĦAR
- * DESKONTUAK IRRRIEN LAGUNAK KLUBEKO TXARTELDUNENTZAT ETA IKAŠTETXE IRRIZALEENTZAT

ANIMATU
TXORIZO
PANPLONA !



ERRESERBAK

ZERAINGO TURISMO BULEGOA

943 801505

TURISMOBULEGOA@ZERAIN.COM

ZERAIN
PAISAIA
KULTURALA

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

maiatza

berriak

Eskeletako aplikazio informatikoak aztergai



Sarean elkarrekin XXXI. Topaketak egin zituen Donostiako Irakasle eskolan. Sareanek, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 178 ikastetxe publiko biltzen ditu. Elkarrekin helburu nagusia da, ikastetxeen eta sistemaren antolatari dagokionean, harremanak eta elkarlana bultzatzea: ikastetxeak haien artean eta baita Administrazioarekin ere.

Jardunaldian parte hartu zutenak,

nagusiki, zuzendaritzan eta ikastetxeko aholkularitzan dabilen kideak izan ziren.

Jardunaldien aztergaia, berriz, eskola bakoitzaren kudeaketa burutzeko eta eskolaren eta Administrazioaren arteko gestioak burutzeko ezinbesteko bihurtu diren aplikazio informatikoak izan ziren: zuzendaritza taldeei eskola kudeaketarako gaur egungo aplikazio informatikoek eskaintzen dizkieten aukerak, hobetu beharrekoak, eta ezarpen prozesuak, hain zuzen.

Jardunaldietako parte-hartzaileek aukera izan zuten aplikazio informatikoak hainbat ikuspegiatik aztertzeko.

Topaketetako partaideek aukera izan zuten, era berean, beren iritzia pla-

zaratzeko. Adierazi zutenaren arabera, “aplikazioak aurretik frogatzea, eta parte hartu duten ikastetxeen iritzia jasotzea eta behar diren zuzenketak egitea beharrezkoa da.

Era berean, aplikazioen diseinua “itxia da, batez ere Administrazioari begira eginak daudelako, eta aukera gutxi ematen du ikastetxeen beharretara egokitzeko”. Horregatik, ikastetxeak bi kudeaketa paralelo eramatera behartuta daude: bat Administrazioak eskatzen duena, eta, bestea, ikastetxeko kudeaketak eskatzen duena, horrek dakarren lan bikoizketarekin.

Azkenik, eskaria egin zioten Administrazioari: “Aplikazioek Hezkuntza Administrazioaren beharrak eta ikastetxeen beharrak kontuan hartu eta uzartu behar dituzte”. Bide horretan, Sarean lagun izango dutela helarazi zioten.

ESKOLA 2.0 programaren erronkak

Argitara eman dira ESKOLA 2.0 programari buruzko inkestaren emaitzak. Inkesta hori, 2009-2010 eta 2010-2011 ikasturteetan Lehen Hezkuntzan ESKOLA 2.0 programan parte hartu zuten irakasleen artean egin da. Neurtutako aldagaiak hauek dira: irakasle-ikaste-prozesuaren esku jarri diren ekipo teknologikoen erabilera, pantaila digital-interaktiboak gelako ohiko lan-jardueretan duen integrazio-maila, hezkuntza-programen eta tresnen erabilera, irakasleek informazio eta komunikazio teknologietara duten sarrera maila, eta ikasleen motibazio mailan duten eragina.

Inkestaren emaitzen arabera, ikasleen motibazioari eta errendimenduari eta irakasleen inplikazioari dagokionean, neurtzeko adierazle guztiak positi-

boak dira.

Inkestaren haritik, Hezkuntza salburu Isabel Zelaak ESKOLA 2.0 proiektuaren lehen fasearen ezarpena “inola-ko arazorik gabe” bukatuko dela adierazi du. Horretarako, lau urtetan 80.000 ordenagailu banatuko ditu ikasle guztien artean.

Hiru ikasturte daromatza Hezkuntza Sailak programa ezartzen. Lehen Hezkuntzako 5. mailako 20.000 ikaslekin hasi zen, eta urtero maila berri bat gehitu diote programari. Gaur egun, 60.000 ikaslek dute bere ordenagailua.



Datorren ikasturtean programa DBH-ko 2. mailara hedatuko da. Guztira, beste 20.000 ikasle berri sartuko dira ESKOLA 2.0 proiektuan.

Nafarroako Hizkuntza exodoari STOP!

Sortzen-Ikasbatuaz elkarrekin salatu duenez, egunero hogei kilometroko bidaia egiten dute, batez beste, Nafarroako 1.400 haur eta gazte inguruk. Beraz, haien hitzetan, "hizkuntza exodoa errealitate bat da"; horren guztia- ren erantzulea Euskararen legea da". Era berean, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politika "guztiz ulertezina" dela salatu dute.

Hori guztia salatzeke eta euskararen aldeko aldarria sostengatzeko milaka pertsona bildu ziren Larragan (Nafarroa). Eskari argia egin zuten: euskarak Nafarroan behar duen estatusa, hau da, ofizialtasun osoa lortzea.

Ekitaldiaren hasieran, duela hamahiru urte euskaraz ikasi ahal izateko egindako eguneroko bidaia luze horietako batean bizia galdu zuen haurrari omenaldia egin zioten: haren gurasoek, jendearen elkartasuna jaso zuten, omenaldi ederrean.

Herri-bazkarian 400 lagunek parte hartu zuten, eta haren ondoren, kale animazioak, zirku-tailerrak, eta musika izan ziren arratsaldean, jendearen gozagarri. Larragako, Artaxoako eta Mendigorriako erraldoiek ere kaleak hartu zituzten, han goitik Larragara bertaratu ziren guztiekin batera euskararentzako estatus berria aldarrikatzeko.



Juli 2012: irakurzaletasuna helburu



JULI kanpainaren helburu nagusia, ikastoletako haurren irakurzaletasuna bultzatzea da, eta ikastoletan antolatzen diren jardueren bilduma da. Kanpainan, haur eta gazte guztiek liburu eta ilustratzaile bat hautatzen dute. Aurten, gainera, neska-mutilen irakurketa-ohituren gaineko galdesorta egin dute, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako Lehen Mailako 4. eta 5. mailako, Kolegiko 6., 5., 4. eta 2. mailako, DBHko eta Lizeoko 2. mailako ikasleen artean. Guztira, 2.800 bat ikasle hartu dute parte.



Bestalde, urtero bezala ikasleen artean "hautakundeak" egin dituzte liburu eta marrazkigile gustukoena aukeratzeko. Denen artean hauek izan dira ikastoletako haurren gustukoena:

- HH - Ama Ikastola: *Mamu tren, mamu tren.*
- LH, LM: 1. eta 2. maila: *Hortza galdu du Jonek.*
- LH, LM: 3. eta 4. maila: *Nureta etxesorbindua.*
- LH: 5. eta 6. maila, Kolegioa 6. maila: *Gref Gizajo baten egunkaria.*
- DBH, Kolegioa 5., 4. eta 3. maila: *Ezekiel.*
- Marrazkilari onena: Juan Luis Landa.

Gazteek zientzia baino nahiago dute kirola



Elhuyar Fundazioak, UPV/EHUren Kultura Zientifikoaren Katedrak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak zientzia eta teknologiari buruzko pertzepzio-azterketa egin dute gazteen artean: *Euskal Herriko gazteen zientzia eta teknologiari buruzko pertzepzioa 2011.*

Azterketaren arabera, kirola da Euskal Herriko gazteen gai gogokoena, alde nabarmenarekin, gainera. Jarraian, zinema eta artea eta kultura agertzen dira. Zientzia eta teknologia, berriz, laugarren lekuan daude.

Azterketak bazuen helburu bat: Euskal Herriko gazteek zientzia eta teknologiari buruz zer iritziz, bizipen, jarrera eta irudi dituzten jakitea, hain zuzen.

Ikerketan parte hartu dute Euskal Herri osoko 10 eta 18 urte bitarteko 2.000 ikaslek.

Zientzia eta teknologiaren esparruko gai zehatzak harturik, informatikak

pizten du interes handiena gazteen artean. Ondotik datoz, teknologia, ingurumena eta osasuna, hurrenez hurren.

Etorkizunari buruz galdetuta, ez dute beren burua ikertzaile gisa ikusten: emandako 11 aukeretatik, 8. aukera ikusten dute zientzialari lanarena.

Bost gai nagusiri buruz galdetu dituzte gazteei: interesak, hedabideetan informazioa bilatzeko ohiturak, zientzia eta teknologiaren hezkuntzaren balorazioa, zientzia eta teknologiaz duten irudia eta bokazioak. Azterketa osoa: laborategia.elhuyar.org/ikerketak.asp?lang=EU



Testuliburuak eta koadernoak ikusgai



UPV/EHUko Araka iker-taldeak eta Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak "XX. mendeko koaderno eta testuliburuak" erakusketa antolatu dute.

Erakusketak, hezkuntzan oinarritukoak izan diren bi euskarri horiei ematen zaien tratua agertu nahi du: alde bategatik, oinarrituko marko teorikotik abiatuta, eskoletako prakti-

kak ezagutzeko; eta, bestetik, ibilbide historikoa erakusteko. Bide batez, ikasmaterialaren bilakaera ikusi ahal izango da.

Erakusketa zabalik dago apirilaren 23tik maiatzaren 16ra bitarte, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Bileran Gelan.

HITZADITZA diktaketa



Euskal kultur Erakundeak eta AEK elkarteak HITZADITZA euskarazko diktaketaren 7. Edizioa antolatu dute. Dikaketa, maiatzaren 5ean izango da, goizeko 9:30ean Baionako IUTan, San Andres plazan, Gaztelu Berrian.

Irabazleek, kulturarekin lotutako sariak jasoko dituzte. Izena emateko eta informazio gehiagorako:

www.hitzaditza.com

Hodeik ez ditu zientziak bereziki gustuko, baina Estibaliz zientzialari iaioa da; udan bizi izan duten maitasun-istorioaren ondoren, Hodei zientziekiko duen ikuspuntua aldatzen hasi da...



Zientziak ala giza zientziak? Zuk noren aldeko hautua egiten duzu?

ZzL

12-16 urte

Gazteentzako zientzia-narrazioko irakurketa-liburua, zientziaren eta literaturaren arteko zubia.

2011ko CAF-Elhuyar sarietan Gazteei zuzendutako zientzia-narrazioak kategorian sarla jaso zuen proiektuaren emaitza da liburu hau.

% 10
merkeago
eta
bidalketa-gastuak
DOAN

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu dezazun, Elhuyarren zientzia eta euskarazko produktuak % 10 merkeago eta bidalketa-gastuak doan apirilaren 23tik maiatzaren 7ra.

www.elhuyar.org/edizioak





Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...

>>> Hik Hasi Euskal Heziketarako Egitasmoak *hik hasi* aldizkaria kaleratzen du duela 17 urtetik. Orain arte, beraz, hezkuntza eskolaren arloan jorratu du. Bidean egindako hausnarketaren ondorioz, eskolan egindako lan hezitzaileak etxean egindakoarekin bat joan behar duela ikusi zuen. Horregatik, proposamen hezitzaile berria kaleratu du: *Hazi Hezi*. Bal al du zentzurik, zure ustez, halako proposamenak?

> Bai, zergatik ez?

Kioskora joan besterik ez dago gaztelaniaz egindago zenbat era horretako aldizkari dauden ikusteko. Beste hizkuntzetan baldin badaude, zergatik ez euskaraz? *Fausti E.*

> Bilbon, guztia gaztelaniaz

Billboko kiosko batzuetan begira aritu naiz, eta egia esan, zuk diozun panorama aurkitu dut. Aldizkari asko bai, baina guztiak gaztelaniaz zeudela esan dezaket. Donostiara, Iruñeara edo edonora joanda, antzekoa gertatuko dela pentsatzen dut.

Niretzat, horrelako izaera izango duen aldizkari bakarra izanda, estiloa eta edukia asmatzea izango da zailena. Hor dago gakoa. Bestela, horren beharra dagoela garbi daukat. *Miren E.*

> Zentzu handia du

Informazio eta komunikazio garai honetan, gain-informazioa dagoela uste dut. Horregatik, zail egiten da hain kontrajariak diren iritzien artean ongi hautatzea. Edozein gairen gainean arituta ere, Internetera sartu eta iritzi pila aurki genezake. Baina, zein informazio da baliagarria? Kriterio zentzudunak eta ongi oinarrituak behar dira eguneroko heziketan, bestela, onuraren orde, kalte handia egin genezake. *Fernando M.*

> Nire ustez, bai.

Krisi garaiotan, komunikabideak egunero ari dira albiste kezkarriak hedatzen. Albiste on gutxi entzuten ditugu. Matxake horrek negatibismoa eta beldurra zabaltzeko arrisku handia dago. Ezkortasuna nagusitu eta pertsona beldurtia baino gauza kezkarriagorik ez dago. Horrek, inobilismora edo astakeriak egitera bideratzen du jendea. Ona da bizitzako gauza garrantzitsuei buruz aritzea. Aldizkariak lagun dezake horretan. *Izaro A.*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> HAZI HEZI argitaratu berri denez, eta ezagutzeko aukera dagoenez, eztabaida gai horren gainean mantenduko dugu.

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

argitalpenak



Zaldi urdin bat margotu zuen artista
Eric Carle/ Manu López Gaseni
PAMIELA

Espresionismoaren aitzindaria izan zen Franz Marc (1880-1916) aleman margolariari egindako omenaldi bat da. Oso testu sinpletik abiaturik eskala kromatiko osoa erakutsiz doa. Albumak, etxabere eta piztia batzuk erakusten ditu, ezohiko itxura, marrazketa eta kolorez irudikatuta. Irudimena bultzatzeaz gain, sormen-askatasuna ere aldarrikatzen du. 3 urtetik gorakoentzat. •



Pirata Ximon
Josu Waliño/ Eider Eibar
AIZKORRI

Pirata Ximon pirata izugarria da. Kanoinoz jositako pirata-ontzian zeharkatzen ditu zazpi itsasoak, Fredi loritoaren laguntzaz. Egurrezkoa da Pirata Ximonen hanka, gorria bizarra eta beltza bandera, piraten burezurrak jantzitako bandera. Baina piratek ere badakite amets egiten. Fantasia sailekoa da, *Karramarro bat buruan* bezala. Biak egokiak dira 5 urtetik gorakoentzat. •



ABC BERRI BAT
Yolanda Arrieta/ Yolanda Mosquera
MEZULARI

Hegoaldeko mutiko baten gogoe-tak, iparraldeko aittaren etxean. Egun berriaren esnaera, senide berriarekin topo egitea, leihoaz bestaldeko errealtatea eta iragana talkan eta, azkenik, bizitza berriaren onarpena. Narrazio poetiko edo poesia narratibo honek, gaztea egoera berrira nola egokitzen den kontatuko digu. 14 urtetik gorakoentzat. •



Sararen basoa
Emilio Urberuaga/ Nekane Umerez
IBAIZABAL

Sara basoan bizi da, baina bertako animaliak ez daude gustura daukaten itxurarekin. Haginen ordezkaria mokoia nahi dute batzuek, edo lepaluzeen lepoa... Ametsetan Sarakerabat perfektua den animalia sortuko duen arren, berehala konturatuko da ez dela hori animaliek nahi dutena, ez dute perfektuak izan nahi. 5 urtetik gorakoentzat. •



Marizikina naiz, eta zer?
Uxue Alberdi/ Eider Eibar
ELKAR

Aneri Marizikin esaten dio beti amak: arrautza-goringoa erori zaiolako soinekoan, edo tomate-saltsa, edo edozer gauza; baita soinekorik zikintzen ez duenean ere, señorita batez baldin bada. Eta zer? bildumaren 22. ipuina da. Testuak Uxue Alberdik prestatu ditu, eta, marrazkiak, berriz, Eider Eibarrek. 8 urtetik gorakoentzat. •



Tantak
Aldizkaria
EHUKO ARGITALPEN ZERBITZUA
Kalean da 23. bolumeneko 2. zenbakia. Honako gaiak jorratu ditu: *Internet LHn, Ordenagailu bidezko ikaskuntza IKASYS proiektuaren ebaluazioa, Irakaslearen eta unibertsitatearen rola ikasleen informazio-kompetentzien garapenean, Kultura arteko komunikazio gaitasuna eta abar.* •

... nora joango gara?

Arrantzaleen Museoa, itsasoko bizitzaren erakusleiho

Gaur egun, ez dago arrantzarik, antzina zegoen moduan; ez, behintzat, garai batean zegoen adinakorik. Kantauri itsasoko herriak itsasoari begira bizi ziren, gaur baino gehiago. Gaur egun, inor ez da bizi jada arrantza-ontzi barruan, arrantzaleek ez dituzte lehengo arropak janzten... Arrantzan eta arrantzaleen bizitzeko eretan gertatu diren aldaketa itzelen lekuko izan nahi du Arrantzaleen Museoa. Museoa, arrantzari buruzko oinordekotza kulturalaren eta etnografikoaren erakusketa aparta dago ikusgai, era guztietako lekukotasunen bidez: dokumentalak, argazkiak, ahozko lekukotasunak, materialak, eta abar. Museoa, gainera, arrantzaleen eremua, bizimodua, lana eta teknikak erakusten dituen museo bakarrenetakoa da munduan.

Milaka urte dira Kantauri itsasoko olatuek Bermeo (Bizkaia) kolpatzen dutela. Antzinatik, itsasoari begira bizi den herria da, beraz.

Bermeoko Portu Zaharrak ez du jada garai batean ezagutu zuen joan-etorririk. Haren talaiatik, ordea, itsasoaren zabalari so jarraitzen dute, begirada zerumugan iltzatuta, "Han datoz!!!" eskultura-multzoa osatzen duten arrantzale-familiako kideek: aita itsasotik noiz etorriko zain daude. Hala, itxaronaldiaren



larritasuna betikotuta geratu da portuaren gaineko behatokian.

Haien atzealdean, hiribilduaren ekialdean, Ertzilla dorrea ageri da, dotore. Erdi Aroan Bermeo harresitua defendatzen zuten 30 dorreetako bat da, gauregun zutik dirauen bakarra, gainera. Inork ez omen daki nork eta noiz egina den. Adituek XV. mende amaierakoa izan daitekeela pentsatzen dute.

Portu Zaharraren gainean estrategikoki kokatua dago Ertzilla dorrea, portu txikiko labarraren gainean. Defentsa-elementuak dituen arren, dorretxea da, eta ertzellatarren etxebizitza izan zen.

Betebehar militarrez gain, hainbat funtzio bete izan ditu mendez mende:

lonja moduan erabili zen, eta, arrantzaleen etxea izateaz gain, arrain-biltegia ere izan zen. 1944an, nazio-monumentu izendatu zuten, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eskuratu zuen 1947an. Handik urtebetera, 1948an, Arrantzaleen Museo bihurtu zuten.

Bermeoko Arrantzaleen Museoa, gai asko daude ikusgai; hala nola kostaldearen eta euskal arrantza-portuen deskribapena; arrantzaleen bizimodua eta ohiturak; arrantzaleen gremio-elkarteak; arrantzarako eta nabigaziorako historian erabili izan diren itsasontzi eta teknikak, eta abar. Horiekin guztiekin batera, dorrearen eta bermeotarren historia ere agertzen da aretoetako batean islaturik.



Dorretxearen barrenean, museoa

Dorretxeko atea zeharkatuta, mendeetan itsasoak altzoan hartu dituen bizimoduak eta tresnak daude zain Arrantzaleen Museoan, lau solairutan atonduta. Beheko solairuan, itsasontzien bilduma dago: XX. mende hasierako bela-batelak, kostako arrantzarako motordun batelak, estropadetarako batelak edota sokak egiteko erabilitako makinak daude ikusgai, besteak beste.

Lehen solairuan, berriz, honoko hauek aurkituko ditu bisitariak: lonjetan arraina saltzeko erabilitako antzina-ko tresnak eta lonja horietan egiten ziren enkante-sistemen azalpenak; San Lazaroren irudi bat, Erdi Arokoa (hari erregutzen zioten arrantzaleek arrantza ona izateko, eta, hala ez zenean, jipoitu egiten zuten irudia); Cuvier-en balekumearen hezurak sabaitik zintzilik; eta arrantzaleen lojen errepika bat.

Solairu bat gorago, bigarrean, XX. mendeko lehen hereneko bakailao-ontzi baten kabina bat eta nabigazio-gela bat daude ikusgai.

Eta azken solairuan, aldi baterako erakusketak eskaintzen ditu museoak.

ARRANTZALEEN MUSEOA

Torrontero enparantza, 1

48370 BERMEO

Tel.: (34) 946 881 171

arrantzalemuseoa@bizkaia.net

www.bizkaia.net/Kultura/Museos/pescador/index.asp?Tem_Codigo=3021&idioma=EU



LEKUA

Bermeoko Portu Zaharreko Ertzilla dorrean dago museoa, Torrontero enparantzan.

ORDUTEGIA

Astelehenetan itxita

Asteartetik larunbatera:

10:00etatik 14:00etara

16:00etatik 19:00etara

Igandean:

10:00etatik 14:15era

BISITAK

Bisita gidatuak eskaintzen dituzte, neska-mutilen adinari egokituak. Bisita horietan parte hartzeko, izena eman behar da aurrez, eta taldeak, gutxienez, 10 lagunekoa izan behar du.

Eskolako taldeentzat euro batekoa da sarrera. 12 urtetik beherako haurrek, ordea, doan dute sarrera. Museoaren egunean, hileko azken ostegunetan, berriz, doan da sarrera.





Joseba OLAGARAI

KAZETARIA ETA AKTOREA

Putxa naiz. Beltza naiz. Marikita naiz. Moroa naiz. Sudaka naiz. Emakumea naiz. Desberdina zu zara! Atentzioa eman zidan markesinako iragarriak. Bortz minutu ebatsi zizkidan autobusa hartu aitzinetik.

Joan den urtean akabatu nituen Haur Hezkuntzako ikasketak. Irakasle izan nahi dut. Irakasle ere bai. Sinesten dut hezkuntzan. Gizartea azpi-azpitik aldatu behar da, haurrak hagitz tikiak direnetik, eta hezkuntza da horretarako armarik indartsuena!

Hernaniko Langile Ikastolan egin nituen Unibertsitateko praktikak. Hantxe ezagutu nuen Zuriñe, bortz urteko neska bixkorra.

Xanet bere ikaskideak behin honakoa

Desberdina naiz?

erran zidan: *“Jolasten garenean Zuriñek beti aita izan nabi du, inoiz ez du ama izan nabi”*. Bertze behin Juanek: *“Zuriñek ez du inoiz gonarik janzten, ez zaizkio batere gustatzen”*. Arrazoi dute Xanetek eta Juanek. Gelako neska guztiek, salbuespenik gabe, gona janzten dute eta Zuriñek ez. Zuriñek txandala erabiltzen du, ahalik eta zabalena. Eta beti aita izaten da jostetan, inoiz ez ama. Horrela sentitzen da erosoan. Horrelakoa da Zuriñe.

Zuriñe desberdina izan daiteke bere ikaskide aunitzen begietara. Gelako nesken gustuak ez ditu konpartitzen. Futbolearen aritzea maite du, gorroto ditu gonak, ez du panpinarik, marroi kolorea da bere kolore faborittoa...

Aniztasunaz gogoeta egiteko pista aunitz eman zizkidan Zuriñek ezagutu nuen lehenbiziko egunetik. Norbaitek badaki zer den aniztasuna? Zer da desberdina izatea? Nago aniztasuna berdintasun guztien azpian dagoen desberdintasuna dela. Edozein giza taldetako itxurazko berdintasun orok gordetzen duen aberastasuna. Zuriñe, errate baterako. Aberastasuna diot, aniztasuna termino positiboa eta hezitzailea delakoz. Eta desberdina diot, talde guztiak heterogeneoak direlakoz. Edo ezagutzen al duzue talde homogeneorik? Nik ez! Ez da talde homogeneorik existitzen. Eta

eskerrak! Heterogeneotasunetik ikasten da gehien, desberdintasunak ezagutu, ulertu eta elkartrukatzetik. Hortaz, aniztasuna talde-ezaugarria da, ume bakoitza desberdin egiten duena eta taldea, talde bezala, aberats bihurtu. Hezkuntza-laneko klabe garantzitsuenetakoa da dudarik gabe.

Mundua definiziotan ulertzen dugu; hau *emakumeada*, hori *gizona*, hau *azkarrara*, hura *tontoa*. Horrela errazagoa da bizitza. Hor ulertu behar dugu aniztasunaren abiapuntua. Modu batean, heterogeneotasunari izenak emanez errealitatea sinplifikatu egiten dugu, ulertzeko errazagoa izan dadin. Zuriñe “mutilak bezalakoa” da, eta punto. Zeinen erraxa e!

Zernahi gisaz, desberdintasuna eta aniztasuna berezkoak ditugu pertsonok, bai ikasle garenean, bai heldu garenean. Baina gizarte batean bizi beharrak desberdintasun horiek saihestera bulkatzen gaitu. Nola gizartean, hala eskolan. Ikastetxeetan ere maila sozialak daude, hierarkiak, gizartean bezalaxe, eta ikasleek “berdintasun” baten barrenean eta mundu parekatu batean bizitzeko ahalegina egiten dute etengabe tiki-tikitatik. Inork ez du desberdina izan nahi. Zenbat Billy Elliotek akabatzen dute ingeniarietza industrialala ikasten?

Portzieto, ni mutila naiz eta ez zait futbola gustatzen. Desberdina naiz?

Bigarren Hezkuntzan ari diren Nafarroako ikasleen % 4,3k noizbait pairatu dute jazarpena eskolan.

berria

ETXERAKO HEZIKETA ALDIZKARIA 1. ZENBAKIA

Hazi Hezi

GAIA:

**"Nola erdituko
naiz?"**

ELKARRIZKETA: LAURA GUTMAN

**"Ama izatean,
mundua desarmatu
egiten zaigu"**

SORMENA

**Mursegorekin
elkarrizketa**



XIII. HIK HASI Udako Topaketak

Donostian, uztailak 3, 4 eta 5



Donostia, 2012

Nire hezitzaile-profila - Nire ikasleekiko harremana - Ikasleak, bere guraso eta familien islada
 Eskola inklusiboa eta aniztasuna - Gure adimena norantz gidatu
 SMK: sentitu, maitatu eta komunikatu - Ez dut zigortu nahi - Familia eta eskola
 Euskara proben eraikuntza - 1512-2012 Nafarroako konkista eta memoria historikoa
 Gortasunaren erronkak - NitikGura idazketa sortzailea - Ipuin tailerra
 Irakurketa, bizitza osorako bide-laguna - Matematika material manipulagarriekin - Coahing
 Ahotsaren erabilera egokia - Eguneroko emozioak - Txotxongilo tailerra - Origamia (paperoflexia)
 Marrazten disfrutatu - Publizitatea gure lagun - Haurrentzako masajea - Yoga saioak
 Dantza garaikidea. Espresio bide eskolan - Txantxa, musika, umorea eta animazioa
 Antzerki irakasle jantziak - Irakasle magoa - Irakasteko tresnak, iturriak eta dokumentazioa

Informazioa: www.hikhasi.com edo 943 371 408